



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2007ko otsailaren 2a

4. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, 2007rako PREVER programa arautzen duena sozietateen gaineko zergari eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari dagokienez (5. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Jabeldura, Gobernuaren politikak, planak eta estrategiak azaltzeko, Kyotoko hitzarmenetan ezarritako konpromisoak betetzeko eta Nafarroan atmosferara igortzen diren gas kopuruak kontrolatzeko eta murrizteko, Aralar parlamentu-taldeak egina (8. or.).

—Jabeldura, argitzeko nafarrek eskubide politikoak dituen subjektu politikoa osatzen duten edota objektu politiko bat, Aralar parlamentu-taldeak egina (8. or.).

—Jabeldura, Nafarroako Uraren Agentzia sortzeari buruz, baliabide hidrologikoekin zerikusia duen ororen ardura izan dezan, Aralar parlamentu-taldeak egina (9. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten du Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuaren legegintzaldi honetako kudeaketa, eta Nafarroako Gobernua premiatzen du orain arteko jarduketa ildoan alda dezan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (10. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gaixo anbulatorioentzako osasun produktuez hornitzeko eta banatzeko lehiaketa publikoetan ezar dezan beharrezkoa izatea banaketa Nafarroako Foru Komunitatean dauden farmazia bulego guztietara egitea. Askotarikoa parlamentu-taldeak aurkeztu du (11. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egin ditzan beharrezkoak diren azterketak landa-ostatu edo landa-hotel xarmangarrien sare bat sortzeko ondare-balio handia duten eraikinetan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (12. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren 293/06 Foru Agindua ken dezan, Menpekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeari eta haiei laguntza emateari buruzko Legearen eta Gizarte zerbitzuei buruzko Foru Legearen aurkakoa baita. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (13. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da parlamentu-talde guztiekin elkarrizketa erronda bati ekin diezaion lehendakarien bilerara joan aurretik. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (14. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako alargun guztien autolikidazioa egin dezan. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak aurkeztu du (15. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 293/2006 Foru Agindua alda dezan eta Gizarte zerbitzuei buruzko Foru Legean agertzen den testua jar diezaion. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak aurkeztu du (15. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da landa-inguruetan merkataritza txikia babes-teari eta hari eusteari buruzko plan bat presta eta aurkez dezan. Aralar parlamentu-taldeak aurkeztu du (17. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da N-121-A errepideko zenbait zatitan egitekoak diren hobetze lanak planifikatu eta gauzatzean, kontuan har dezan oraingo lanak baliagarriak izan behar luketela balizko bikoizketa baterako. Aralar parlamentu-taldeak aurkeztu du (17. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Irurtzango saihebidetako lanak errepideak arintzeko planean sartu eta 2007an zehar has daitezten. Aralar parlamentu-taldeak aurkeztu du (18. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, 28/2005 Foru Legea urratzeagatik 2006an zehar zehapan bakar bat ere jarri ez izanaren arrazoiei buruzkoa, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egina (19. or.).
- Galdera, Logroño azaroaren 30ean eta abenduaren 1ean autonomia erkidegoetako hezkuntza kontseilari-ekin egindako bilerari buruzkoa, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (20. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuko lehendakaria 2007ko urtarrilaren 13an bakearen aldeko eta indarkeriaren aurkako elkarretaratzera ez joan izanaren benetako arrazoiari buruzkoa, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egina (20. or.).
- Galdera, Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioari egoitza berria eraikitzeko dirulaguntza emateko erabilitako irizpideei buruzkoa, foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervas jaunak egina (21. or.).
- Galdera, “Zortziko” deituriko biribilgunean izaten diren zirkulazio arazoei buruzkoa, foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervás jaunak egina (22. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak Humanismo y Democracia Fundazioaren irregulartasunen ondoriozko erantzukizun politikoak bere gain hartzea aurreikusia duen jakiteko buruzkoa, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egina (22. or.).
- Galdera, Reina Sofía Ospitaleko alergologia unitatea noiz jarriko den abian eta zer langile izanen dituen jakiteko buruzkoa, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egina (23. or.).
- Galdera, Larraungo haraneko baliabide hidrografikoei eta emari ekologikoei buruzko azterlana zer egoe-ratan dagoen jakiteko buruzkoa, foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervas jaunak egina (24. or.).
- Galdera, San José zentro publikoa aspalditik jasaten ari den egoera larriari buruzkoa, foru parlamentari Fernando Puras Gil jaunak egina (24. or.).
- Galdera, 2007ko Aurrekontu Orokorretan Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen araubide iragankorrari buruzko 10/2003 Foru Legeko 29. artikulua aldatzen duen xedapen gehigarri bat onetsi eta horrek eragindako bidegabekeriari konponbidea emateko Nafarroako Gobernuak dituen asmo eta aurreikuspenei buruzkoa, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egina (25. or.).
- Galdera, trenbidearen kiribilguneari, Etxabakoizko hirigintza garapenari eta hor dagoen Inquinasa enpresa irteteari buruzkoa, foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak egina (27. or.).
- Galdera, “Nafarroako Unibertsitatea enpresa lankidearen osasun-laguntza” izeneko kontusailari buruzkoa, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egina (28. or.).
- Galdera, Comisión de navarros en Madrid izeneko elkarte bati buruzkoa, foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak egina (28. or.).
- Galdera, Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak departamentuan gauzatu duen hizkuntza politikari buruzkoa, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (29. or.).

- Galdera, Tuterako nekazaritza-elikagaien hiria jarriko den poligonoko obren exekuzioari buruzkoa, foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak egina (29. or.).
- Galdera, jakiteko zer udaletako liburutegi gelditu diren, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren aginduz, liburuak erosteko Kultura Ministerioak ematen duen dirulaguntzarik gabe, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egina (30. or.).
- Galdera, Errege-abelbidea eta Erronkarikoa lotzen dituen E-18 adarrak bide-zorra izan behar duela dioen araudia noiz betearaziko den jakiteko, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egina (31. or.).
- Galdera, gaixotasun arraroak dituzten gaixoak babesik gabe ez daitezen gelditu edo administrazioak utzikeriaz jokatu duela ez dezaten iritzi Osasun Departamentuak prozedura bat abian jartzeko duen asmoari buruzkoa, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egina (32. or.).
- Galdera, entzumen-urritasuna dutenek hezkuntza sistemari dituzten arazoei buruzkoa, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egina (32. or.).
- Galdera, jakiteko Osasun Departamentua gauza den Nafarroako Gorren Elkarteak eginiko eskaerak betetzeko, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egina (33. or.).
- Galdera, jakiteko “Nafarroako Erresuma. Lur anitza” izeneko turismo-kanpainan zergatik ez den irizpide bateratua erabili Nafarroa izendatzeko kanpainako hizkuntzetan, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egina (34. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak asmorik ba ote duen Etxalarren landako internet zerbitzu bat jarri eta egun itzalean dauden guneak itzalpetik ateratzeko, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egina (35. or.).
- Galdera, jakiteko Osasun Departamentua prest ote dagoen kontuan hartzeko Nafarroako osasun larrialdietako profesionalek haserre egoteko dituzten arazoak eta konponbideak bilatzen saiatzeko, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egina (35. or.).
- Galdera, UNEDen Tuterako ikastetxe elkartuari buruzkoa, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (36. or.).
- Galdera, minbiziak Nafarroan eskualdeka duen eraginari buruzkoa, eta jakiteko gaixotasun horrek Sakanan eragin handiagoa izateak zerikusia izan dezakeen bertan gai kutsagarriak igortzen dituzten industriak egotearekin, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egina (37. or.).
- Galdera, jakiteko ea legegintzaldi honetan hitzarmen berezirik egin ote den interes orokorreko azpiegiturak kaltetutako udalekin, horiei ordaina emateko, foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak egina (38. or.).
- Galdera, jakiteko baremazio berezirik aplikatu ote den 2003, 2004, 2005 eta 2006. urteetan toki entitateen eskualde zerbitzu bateratuak finantzatzerakoan edo haiei diruz laguntzean, foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak egina (39. or.).
- Galdera, jakiteko ea 2003, 2004, 2005 eta 2006. urteetan finantza-saneamenduko neurriak aplikatu zaien arazo ekonomiko larriak zituzten toki entitateei, foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak egina (39. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak asmorik ba ote duen neurriren bat hartzeko Toki Administrazio-ko Departamentua toki entitateekiko harremanetarako lehiatila bakar bihurtzeko, foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak egina (40. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Lehendakariaren, eledunen eta Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko behin-behineko langileen ordainsariak (41. or.).
- Foru parlamentariaren eta parlamentu-taldearen ordainsariak 2007ko ekitaldirako (42. or.).
- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialaren eta Bilkura Egunkariaren tarifak 2007ko ekitaldirako (42. or.).
- Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen plantilla organikoa, 2007ko urtarrilaren 1ekoa (43. or.).
- Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko funtzionarioen zerrenda, 2006ko abenduaren 31koa (45. or.).
- Nafarroako Comptos Ganberako 2007. urterako plantilla organikoa eta erakunde horren funtzionarioen zerrenda 2006ko abenduaren 31koa (47. or.).

H SAILA:

Bestelako testu arau-emaileak:

- 1/2007 Legegintzako Foru Dekretua, urtarrilaren 22koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena ([49. or.](#)).
- 2/2007 Legegintzako Foru Dekretua, urtarrilaren 22koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Zerga Berezi-
ei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duena ([52. or.](#)).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, 2007rako PREVER programa arautzen duena sozietateen gaineko zergari eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari dagokienez.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2007ko urtarrilaren 22an hartutako erabakiaren bidez, sozietateen gaineko zergari eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari dagokienez 2007rako PREVER programa arautzen duen Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 155. artikuluan ezarritakoarekin bat, eta Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1.- Sozietateen gaineko zergari eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari dagokienez 2007rako PREVER programa arautzen duen Foru Lege proiektuaren tramitazioa zuzenekoa eta irakurketa bakarrekoa izateari buruzko erabakia Osoko Bilkuraren esku jartzea.

2.- Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkura egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

3.- Aipaturiko proiektua Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**Foru Lege proiektua,
2007rako PREVER programa arautzen duena sozietateen gaineko zergari eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari dagokienez**

Foru lege honen xedea da 2007. urterako PREVER programaren onura fiskalak arautzea Sozietateen gaineko zergari eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari dagokienez, baina aplikazio esparrua gehieneko pisu baimendua sei tona baino gutxiagokoa duten ibilgailu industrial berrietara mugatuta.

PREVER programaren barrenean zenbait garraibideren gaineko zerga berezia xedetzat duen zatia, zerga horren kuotari egiten zaion kenkariari dagokionez, 2007rako ere arautu da, eta 2.500 zentimetro kubikotik beherako zilindraia duten automobil berrien behin betiko lehen matrikulazioa egitean aplikatuko da. Aipatutako kenkaria Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Legearen 47.bis artikuluan arautu zen.

PREVER programa ibilgailuen parkea modernizatzeko, bide-segurtasuna hobetzeko eta ingurumena babesteko sortu zen; zenbait onura fiskal ematean datza programa, eta bi modutara gauzatu da: kasu batzuetan, Zenbait garraibideren gaineko zerga bereziaren kuotari kenkaria eginez, eta beste batzuetan ibilgailuaren saltzailearen zerga pertsonalaren kuotari kenkaria eginez (sozietateen gaineko zergan edo pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan). Foru lege honek bigarren onura fiskal horiek ditu hizpide, hau da, sozietateen gaineko zergan edo pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan kuota likidoari aplikatu ahalko zaion kenkaria.

PREVER programaren aplikazioa 2006ko abenduaren 31ra artekoa izatea aurreikusirik bazegoen ere –eta hala adierazten da kenkari hau foru araudian txertatu zuen martxoaren 29ko

3/2004 Foru Legearen atarikoan-, Estatuko araudi-an indarraldia izanen du 2007. urtean ere, ingurumenaren ikuspuntutik garraiobideetan eragina duen fiskalitatea birmoldatzeko irizpideak zehaztu bitarte. Kontuan harturik komeni dela arlo honetan foru araudia estatukoarekin bat etortzea, martxoaren 29ko 3/2004 Foru Legea indargabetu da, eta sozietateen gaineko zergan edo pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan kuota likidoari egin beharreko kenkaria araubide erkidean xedatutakolari egokitu zaio.

Hortaz, programa hori 2008ko urtarrilaren 1ean desagertzea aurreikusi da, eta sozietateen gaineko zergan edo pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan kuota likidoari egin beharreko kenkariari dagokionez, aplikatzea soilik gehieneko pisu baimendua sei tonatik beherakoa duten ibilgailu industrial berriak erosi edo finantza-errentamenduan eskuratu dituztenei, betiere erosleek edo finantza-errentatzaileek frogatzen badute baja eman diotela, desegitera eramateko, gehieneko pisu baimendua sei tonatik beherakoa duen eta haien titularitatekoa den beste ibilgailu industrial bati, eta foru lege honetan zehaztutako zenbait baldintza betetzen badira.

1. artikulua. Ibilgailuen ezaugarriak.

Ondorioak 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera izateko eta soilik 2007ko abenduaren 31ra arte, 4. artikuluan aipatzen diren pertsonen honako kenkari hau egin ahalko diote sozietateen gaineko zergaren kuota likidoari edo pertsona fisikoen errentaren gaineko kuota likidoari: gehieneko pisu baimendua sei tonatik beherakoa duten ibilgailu industrial berriak erosi edo finantza-errentamenduan eskuratu dituztenei emandako hobariaren zenbatekoa, betiere erosle edo finantza-errentatzaile horiek frogatzen badute baja eman diotela, desegitera eramateko, gehieneko pisu baimendua sei tonatik beherakoa duen eta haien titularitatekoa den beste ibilgailu industrial bati, eta baldintza hauek betetzen badira:

a) Desegitera eramateko ibilgailuak zazpi urte baino gehiago izatea behin betiko lehen matrikulaziotik. Behin betiko lehen matrikulazioa ez bada Espainian egina, nahitaezkoa da, aurreko lerroaldean aipatzen den antzinasunaz gainera, desegitera eramateko ibilgailua Espainian behin betikoz matrikulatua izatea, desegiteko behin betiko baja baino urte bete lehenago gutxienez.

b) Bai ibilgailu berria bai desegitera eramateko ibilgailua Trafiko, Motoredun Ibilgailuen Zirkulazio eta Bide Segurtasunari buruzko martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuaren eranskineko 23. eta 26. idatz-zatietan sarturik egotea,

bai eta Zenbait Garraiobideren gaineko zerga bereziko lotura-erazeko kasuetakoren batean ere, zehazki Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legeko 42. artikuluko 1. idatz-zatiaren a) letran jasotzen diren horietakoren batean.

2. artikulua. Kenkariaren zenbatekoa.

Kuota likidoari dagokionez, aurreko artikulua aipatzen duen kenkaria ez da 480,81 euro baino gehiago izanen.

3. artikulua. Kenkarirako baldintza.

Hobariaren zenbatekoa ez da kengarria izanen baldin eta ibilgailu zaharrari baja eman zaionetik berriaren matrikulazioa egin arte sei hilabete igaro badira.

4. artikulua. Kenkaria egin dezaketzen pertsonak.

Aurreko 1. artikuluan aurreikusitako kenkaria fabrikatzaileak, Espainiako lehen hartzaileak edo, bestela, eta horien orde, kontzesiodunarekin edo azken saltzailearekin banaketarako kontratu-harremanak dituenak egingen du.

Kasua hori bada, kontzesiodunak edo ibilgailuaren azken saltzaileak haren prezioan aplikatuko du hobaria, baina hobari horrek ez du eraginik izanen ez balio erantsiaren gaineko zergaren oinarrian, ez kuotan.

Finantza-errentamenduaren kasuan hobariaren zenbatekoa balio erantsiaren gaineko zergaren oinarrian sartuko da.

Foru lege honek aipatzen duen hobaria bereganatzen duen subjektu pasiboak kontzesiodunari edo azken saltzaileari itzuliko dio hobariaren zenbatekoa, 2. artikuluan kenkariaren zenbatekoari ezarritako mugarekin, eta azken horrek hari eman beharko dizkio kenkaria aplikatu izana frogatzen duten fakturak eta ibilgailuen baja-ziurtagiriak, saltzaileek sozietateen gaineko zergan edo pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan egiten dituzten kenkariak frogatzeko.

5. artikulua. Baldintzak betetzen direla frogatzea.

Aurreko artikuluetan eskatzen diren baldintzak betetzen direla agertaraziko da Trafiko Zuzendaritza Nagusiak edo haren menpeko organo eskudunek ibilgailuei buruz ematen dituzten baja-ziurtagiritan.

6. artikulua. Konturako ordainketatzat hartzea.

Aurreko 1. artikulua aipatzen duen kenkariaren zenbatekoa konturako atxikipen eta sarreraren pareko-

tzat hartuko da abenduaren 30eko Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 74. eta 86. artikuluetan eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legearen 91. artikulua arautzen duten kenkaria egiteko eta, hala bada, ofiziozko itzulketarako, eta berdin subjektu pasiboak egin beharreko zatikako ordainketetarako.

Xedapen indargabetzailea. Martxoaren 29ko 3/2004 Foru Legean araututako ibilgailuen parkea modernizatzeko Prever programaren bukaera.

Ondorioak 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera izateko, indarrik gabe gelditu da Prever programa luzatzen duen martxoaren 29ko 3/2004 Foru Legea, xedapen gehigarri bakarra kenduta.

Azken xedapena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, legean berean aurreikusitako ondorioak izateko.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, Gobernuaren politikak, planak eta estrategiak azaltzeko, Kyotoko hitzarmenetan ezarritako konpromisoak betetzeko eta Nafarroan atmosferara igortzen diren gas kopuruak kontrolatzeko eta murrizteko.

ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, Gobernuaren politikak, planak eta estrategiak azaltzeko, Kyotoko hitzarmenetan ezarritako konpromisoak betetzeko eta Nafarroan atmosferara igortzen diren gas kopuruak kontrolatzeko eta murrizteko Aralar parlamentu-taldeak aurkeztu zuen jabelduraren biderapena onestea erabaki zuen. Legebiltzarreko Erregelamenduko 180. artikuluan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

JABELDURAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak, Legebiltzarreko

Erregelamenduko 180. artikulua ezarritakoari jarraikiz, jabeldura hau aurkeztu dio Nafarroako Gobernuko lehendakari Sanz jaunari, eta tramitatzeko onar dezala eskatzen dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari.

Aralar parlamentu-taldearen jabeldura:

Bere gobernuaren politikak, planak eta estrategiak azal ditzan, Kyotoko hitzarmenetan ezarritako konpromisoak betetzeko eta Nafarroan atmosferara igortzen diren gas kopuruak kontrolatzeko eta murrizteko.

Hortaz, Nafarroako Parlamentuko Mahaiari eskatzen diot jabeldura hau aurkeztutzat jo eta behar bezala tramita dezan.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 15ean

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Jabeldura, argitzeko nafarrek eskubide politikoak dituen subjektu politikoa osatzen duten edota objektu politiko bat.

ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK EGINA

Aralar parlamentu-taldeak ondoko jabeldura aurkeztu zuen: "argitzeko nafarrek eskubide politikoak dituen subjektu politikoa osatzen duten edota objektu politiko bat".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, aurkezturiko

jabelduraren biderapena onestea erabaki zuen. Legebiltzarreko Erregelamenduko 180. artikuluan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

JABELDURAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeak Osoko Bilkurarako jabeldura hau aurkeztu dio Nafarroako Gobernuko lehendakari Sanz jaunari, eta tramitatzeko onar dezala eskatzen dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari, Legebiltzarreko Erregelamenduko 180. artikulua ezarritakoari jarraikiz.

Nafarroako Gobernuko lehendakari Miguel Sanz Sesmak duela gutxi eginiko adierazpen batzuetan esan zuenez, "mozkorra egon behar da" (sic) nafarrek euren etorkizun politikoa erabaki behar dutela defendatzeko. Sanz jaunaren ustez, Nafarroak, hau da, nafarrek, beren estatusa eta etorkizun politikoa erabakitzeko ahalmenaren moduko eskubide politikoak dituen subjektu politiko bat osatzen al dute edo, aldiz, objektu politikoa dela uste al du?

Zioak:

Jabeldura honetan planteatzen den gaia oso garrantzitsua da Nafarroako foru eraentzaren egoitzapena, gaur egun foru hobekuntzara mugatuta dagoena eta legegintzaldi honetan oztopatua izan dena, bideratzeko. Izan ere, UPN eta CDN alderdiek fikziozko gehiengoan izan duten legegintzaldi

honen balantzea erabat negatiboa da Nafarroako foru eraentza XXI. mendera eta Nafarroa Europar Batasuneko kide izatera, eta, batez ere, garai modernoetara egokitzeari dagokionez, eta transferentzien gaiari dagokionez. Horri gehitu behar zaizkio jada aipatu diren Sanz jaunaren zoritxarreko adierazpenak, zentzu guztietan.

Hala ere, 2007ko urtarrilaren 15ean Diputatuen Kongresuan izandako eztabaidan, Rajoy jaunak Nafarroa objektu gisa aipatu zuen zoritxarrez, eta Uxue Barkos diputatu nafarrak desberdintasuna egin zuenean subjektuaren eta objektuaren artean, Espainiako Gobernuko lehendakari José Luis Rodríguez Zapatero jaunak desberdintasun hori onartu eta txalotu zuen. Are gehiago, oso kritika larriak egin zizkien Nafarroa politika doilor eta hipokritaren objektutzat hartzen dutenei.

Hori dela eta, jabeldura hau bidezkoa eta egokia da, nahiz eta haren emaitzak ez diren iritsiko foru eraentza gaietan hain antzua eta negatiboa izan den legegintzaldi hau amaitu eta geroago arte.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 19an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Jabeldura, Nafarroako Uraren Agentzia sortzeari buruz, baliabide hidrologikoekin zerikusia duen ororen ardura izan dezan.

ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, Aralar parlamentu-taldeak Nafarroako Uraren Agentzia sortzeari buruz, baliabide hidrologikoekin zerikusia duen ororen ardura izan dezan, aurkeztu zuen jabelduraren biderapena onestea erabaki zuen. Legebiltzarreko Erregelamenduko 180. artikuluan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

JABELDURAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 180. artikulua ezarritakoari jarraikiz, jabeldura hau aurkeztu dio Nafarroako Gobernuko lehendakari Sanz jaunari, eta tramitatzeko onar dezala eskatzen dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari.

Aralar parlamentu-taldearen jabeldura:

Parlamentuan azal dezan zein den Gobernuaren jarrera eta borondate politikoa ondoko gaiei dagokienez:

a) Nafarroako Uraren Agentzia sortzeari buruz, baliabide hidrologikoekin zerikusia duen ororen ardura izan dezan, aprobetxamendu, kudeaketa, arazketa, uraren kalitate, ubide eta ibai-ertzen mantentze, uraren erabilera eta abarri dagokionez.

b) Ebroko Konfederazio Hidrografikoarekin eta Kantauriko Konfederazio Hidrografikoarekin negoziazioa hastera, jatorria eta amaiera edo zatirik gehienak Nafarroan dituzten ubide eta arro guztien kudeaketa Nafarroari laga diezaioten.

Hortaz, Nafarroako Parlamentuko Mahaiari eskatzen diot jabeldura hau aurkeztutzat jo eta behar bezala tramita dezan.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 24an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten du Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuaren legegintzaldi honetako kudeaketa, eta Nafarroako Gobernua premia-tzen du orain arteko jarduketa ildoa alda dezan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten du Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuaren legegintzaldi honetako kudeaketa, eta Nafarroako Gobernua premia-tzen du orain arteko jarduketa ildoa alda dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko. Mozioa Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu eta iragan abenduaren 22ko Osoko Bilkuran eztabaidatu zen jabeldura baten ondotik dator; hain zuzen, gobernuak Kultura Departamentuaren kudeaketarekin duen gogobetetasun mailari buruzkoa.

Zioen azalpena:

Aipatu jabelduraren eztabaidan, parlamentu-talde honek adierazi zuen Nafarroako Gobernuak garatutako kultura arloko politika desegokia dela. Hala, Kultura Departamentuko titular Corpas jaunaren kudeaketa ez da ez eraginkorra, ez efizientea, eta oso txarra da. Ez dago jarduera ildo ezartzen duen estrategia orokorrik; aldiz, gobernu osatzen duen gehiengoaren gutizian eta hauteskunde-interesetan oinarritzen da. Baina larriena da Nafarroako Gobernuko lehendakariak bere gain hartzen duela Corpas jaunak eginiko kudeaketa eta harekin erabat gustura dagoela.

Nafarroako alderdi sozialistaren ustez, beste kultura politika bat egin daiteke eta beharrezkoa da, eta kultur arloko politika errotik alda dadin eskatzen dugu, helburu orokorrak erabat birbideratzeko, estrategia birformulatzeko, Kultura Departamentuaren jarduna funtsean hobetzeko eta bere jarduteko modua aldatzeko.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten du Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuaren legegintzaldi honetako kudeaketa, eta Nafarroako Gobernua premia-tzen du orain arteko jarduketa ildoa alda dezan eta Nafarroako gizartearen eskakizunei egokitutako kultura arloko politika egin dezan.

Iruñean, 2006ko abenduaren 27an

Eleduna: Fernando M.^º Puras Gil

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gaixo anbulatorioentzako osasun produktuez hornitzeko eta banatzeko lehiaketa publikoetan ezar dezan beharrezkoa izatea banaketa Nafarroako Foru Komunitatean dauden farmazia bulego guztietara egitea.

ASKOTARIKOA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Askotarikoa parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da gaixo anbulatorioentzako osasun produktuez hornitzeko eta banatzeko lehiaketa publikoetan ezar dezan beharrezkoa izatea banaketa Nafarroako Foru Komunitatean dauden farmazia bulego guztietara egitea".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osasun Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Askotariko parlamentu-taldeko eledun José Luis Etxegarai Anduezak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren arabera, ondoko mozioa aurkeztu du, Osasun Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gaixo anbulatorioei osasun arloko produktuak banatzeko lehiaketa publikoetan ezar dezan beharrezkoa izatea banaketa Nafarroako Foru Komunitatean dauden farmazia bulego guztietara egitea.

Zioak:

Osasunbideak gaixoei igorritako komunikazioen bidez, jakin dut 2007ko urtarrilaren 1etik gaixo anbulatorioei inkontinentzia-xurgagaiak foru erki-

degoko farmazia bulegoen batzuetan bakarrik banatzen zaizkiela.

Foru parlamentari honen iritziz, egokia da halako lehiaketak egitea, administrazioarentzako kostuak murrizteko xedez; baina, halaber, uste du halako lehiaketak egiten direnean ez dela ahaztu behar gaixo guztiei ematen zaien zerbitzua ez dela okerragoa izan behar.

Ulertzekoa denez, osasun sistemaren barruan garrantzitsua da gaixoaren eta farmazialariaren artean sortzen den konfiantza-harremana, baita farmazia bulegoa gertu egotea eta bulego guztiek produktu guztiak eskaini ahal izatea baldintza berdinetan. Hori dela eta, foru parlamentari honen ustez, beharrezkoa da heldu diren horniketa-lehiaketetan baldintza gisa jartzea xurgagaiak edo bestelako produktuak foru erkidegoko farmazia bulego guztietan banatzea.

Halaber, nire ustez, banaketa farmazia bulegoen zati batek bakarrik egiten badu, zeharkako aldaketa garrantzitsuak gerta daitezke farmazia produktuen banaketaren merkatuan; eta, horretaz gain, kontuan hartu behar da farmazia bulego horien zerrenda etengabe alda daitekeela, baita lehen aipatutako gaixoentzako kalteak ere.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du osasun arloko produktuez hornitzeko eta banatzeko lehiaketa publikoetan ezar dezan beharrezkoa izatea banaketa Nafarroako Foru Komunitatean dauden farmazia bulego guztietara egitea.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 10ean

Eleduna: José Luis Etxegarai Andueza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egin ditzan beharrezkoak diren azterketak landa-ostatu edo landa-hotel xarman-garrien sare bat sortzeko ondare-balio handia duten eraikinetan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da egin ditzan beharrezkoak diren azterketak landa-ostatu edo landa-hotel xarman-garrien sare bat sortzeko ondare-balio handia duten eraikinetan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahal dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena:

Badira urte batzuk Nafarroako Gobernua aha-legintzen ari dela foru erkidegoa destino turistikoa garrantzitsua izan dadin. Aitortzen dugu ahalegina handia izan dela; izan ere, denbora eta diru asko jarri da. Zalantzarik gabe, Kultura eta Turismo Departamentuak bere arduraren beste erdiari eskaini diona baino askoz gehiago. Nahiz eta aha-legin handia izan, emaitzak ez dira espero zirenak

izan, are gutxiago beharrezkoak direnak turismoak nahikoa garrantzia izan dezan, landa eremuen lurralde kohesioa eta garapen ekonomiko eta soziala bermatzeko.

Azken urteotan funtzionamenduan jarri diren landetxeak garrantzitsuak dira eta hasieran zuten helburua betetzen dute; hala ere, ez dute beste autonomia erkidegoetan oso ondo funtzionatzen duten beste mota bateko hotelek duten ospea, hala nola eraikin enblematikoetan eta interes historikoa, artistikoa eta arkitektonikoa dutenetan sortutako hotel txiki eta ertainak. Hotel horiek oso erakargarriak izanzen lirateke Nafarroako historian, ohituretan, gastronomian edota paisaian sakondu nahi duen kalitatezko turismoarentzat.

Nafarroako Foru Komunitatean badira aipatu ezaugarriak izateaz gain, zaharberritzeko edo leheneratzeko beharra duten eraikinak, udalek, baliabide falta dela-eta, zaindu eta leheneratu ezin dituztenak, jabeago pribatuko eraikinak, eta maiz gertatzen da haien jabeek gobernuari laguntza eskatzen diotela eraikin horiek zutik mantendu ahal izateko eta ondarea ez galtzeko.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du beharrezkoak diren azterketak egin ditzan landa-ostatu edo landa-hotel xarman-garrien sare bat sortzeko Nafarroako eskualde desberdinetako ondare-balio handia duten eraikinetan, turismoaren kalitatea hobetzeko eta ondarearen zati bat berreskuratzeko xedearekin.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 9an

Eleduna: Fernando M.^ª Puras Gil

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren 293/06 Foru Agindua ken dezan, Menpekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeari eta haiei laguntza emateari buruzko Legearen eta Gizarte zerbitzuei buruzko Foru Legearen aurkakoa baita.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren 293/06 Foru Agindua ken dezan, Menpekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeari eta haiei laguntza emateari buruzko Legearen eta Gizarte zerbitzuei buruzko Foru Legearen aurkakoa baita."

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, Gizarte Ongizateko kontseilariaren abenduaren 22ko 293/2006 Foru Agindua erretiratzeari buruzko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena:

Iragan abenduaren 14an Diputatuen Kongresuak onetsi zuen Menpekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeari eta haiei laguntza emateari buruzko 39/2006 Legean herritarren eskubide bat ezartzen da; hain zuzen, eskubide hori eguneroko oinarrizko jarduerak egiteko laguntza behar duten pertsonentzat da.

Menpekotasun egoeran dauden pertsonak zerbitzu eta prestazio batzuk jasotzeko duten eskubidea, haien menpekotasun egoerari duintasunez aurre egitea ahalbidetuko dietenak (etxez etxeko laguntza, eguneko eta gaueko zentroak, egoitzak),

baita haien autonomia pertsonala sustatzea ere, herritar izaera erabat gara dezaten gizartearen barruan (prebentziorako, eta babesa eta laguntza pertsonala emateko zerbitzuak).

Menpekotasunari kasu egiteko sisteman ezarritako prestazio katalogoan, badira prestazio ekonomikoak, zerbitzuaren kontratazioari loturiko prestazio ekonomikoak, eta familia inguruneko norbait zaintzeagatiko prestazio ekonomikoak.

Lege honetan ezartzen da, berritasun gisa, prestazio ekonomikoaren zenbatekoa menpekotasun mailaren eta onuradunaren gaitasun ekonomikoaren arabera izanen dela.

Halaber, abenduaren 14ko Gizarte zerbitzuei buruzko 15/2006 Foru Legearen 53. artikuluan erabiltzaileek finantzazioan izanen duten parte-hartzea definitzen da, eta bertan ezartzen denez, erregelamenduz ezarriko dira erabiltzaileen parte-hartzearen zenbatekoa zehazteko irizpideak; betiere, erabiltzailearen gaitasun ekonomikoaren irizpidea eta unibertsaltasunarena errespetatu beharko dituzte.

Horren ondotik, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariak abenduaren 22ko 293/2006 Foru Agindua onetsi zuen. Haren bidez, menpeko pertsonari beren bizilekuan bertan zainketa-zerbitzuak lortzeko eta pertsona horiek zaintzen dituzten familiei babesa emateko 2007ko laguntzetarako deialdia onetsi zen. Nafarroan 8.000 pertsonak dute menpekotasun larria edo handia.

Foru agindu horretan familia unitatearen errenta hartzen da kontuan prestazio ekonomikoak emateko edo ukatzeko, eta hori estatuko menpekotasunari buruzko legean eta Gizarte zerbitzuei buruzko Foru Legean ezarritakoaren aurkakoa da, eta ez dator bat abenduan eta urtarrilean foru erkidegoko hedabideetan argitaratu diren hainbat albisterek.

Horregatik guztiagatik, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak honako mozio hau aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren 293/06 Foru Agindua ken

dezan, Menpekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeari eta haiei laguntza emateari buruzko Legearen eta Gizarte zerbitzuei buruzko Foru Legearen aurkakoa baita, eta beste arau bat onetsi dezan, onuradunaren errenta kontuan har-

tzen duena menpekotasuna duten pertsonentzako prestazioak kalkulatzeko.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 11n

Eleduna: Fernando M.^a Puras Gil

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da parlamentu-talde guztiak elkarrizketa erronda bati ekin diezaion lehendakarien bilerara joan aurretik.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da parlamentu-talde guztiak elkarrizketa erronda bati ekin diezaion lehendakarien bilerara joan aurretik."

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena:

Espainiako Gobernuko lehendakariak autonomia erkidegoekin eztabaida bideak ezartzeko konpromisoa hartu zuen, eta asmo hori autonomia erkidegoetako lehendakarien bileren bidez instituzionalizatu du. Horren bidez, erakundeak sendotzeko eta autonomien estatua integratzeko etapa bat diseinatu du.

Lehendakarien konferentzia gune egokia da bultzada berrien beharra politikoki erabakitzeko, eta administrazio publiko desberdinen arteko lan-kidetza eta interes orokorreko gaitan izan beharreko kooperazioa areagotzeko.

Autonomia erkidego bateko lehendakariaren konpromiso nagusia da ordezkatzeko dituen herritarren interesak defendatzea, eta ez du alderdien kontsignen arabera jokatu behar.

Bilera horiek hitzarmenerako eta erakundeen arteko elkarrizketarako guneak izan behar dute, eta ez dira erabili behar alderdien arteko norgehiagokarako.

Nafarroak ezin dezake jasan gobernu zentralarekin norgehiagoka aritzea eta politika alderdikerrizalea egitea; aldiz, Nafarroaren interesak lehentasuna izan behar du.

Horren arabera, logikoa dirudi Nafarroako erakundeekin ordezkari gorenaren Gobernuko lehendakariak Parlamentuan ordezkari izan behar duen alderdi politikoekin elkarrizketa erronda bat egitea ekin diezaion lehendakarien bilerara joan aurretik.

Horregatik guztiatik, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak honako mozio hau aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen da parlamentu-talde guztiak elkarrizketa erronda bat egiteari ekin diezaion lehendakarien bilerara joan aurretik.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 12an

Eleduna: Fernando M.^a Puras Gil

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuia premiatzen da Nafarroako alargun guztien autolikidazioa egin dezan.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernuia premiatzen da Nafarroako alargun guztien autolikidazioa egin dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Aurten, eztabaida askoren eta hainbat gorabeheraren ostean –eta zergatik ez esan, 2007a hauteskunde-urtea izateak ere zerikusia izanen du–, azkenik gobernuak alargun pentsioak handitu ditu

lanbide arteko gutxieneko soldatarekin parekatzeraino.

Baina alargun guztiak ez dira kobratzen hori hasiko 2007ko urtarrilean. Batzuek, gutxieneko pentsioa ez dutenek eta lanbide arteko gutxieneko soldatara ere iristen ez direnek, 2007ko errentaren aitorpena egin arte itxaron beharko dute eta, 2008an, aipatu aitorpena urtearen erdian egin ondoren, hasiko dira kasuan kasuko konpentsazioa kobratzen.

Hainbat pertsonari eragiten dien desoreka hori konpontze aldera, gure parlamentu-taldeak zuzenketa bat aurkeztu zien 2007ko aurrekontuei, baina baztertu egin zen.

Kontua da ahalik eta denbora laburrenean ahalik eta pertsona kopuru handienaren pentsioak lanbide arteko gutxieneko soldatarekin parekatzea; izan ere, ezin dugu ahaztu adineko populazio tartean dela. Hori dela eta, ondoko erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak Nafarroako Gobernuia premiatzen du Nafarroako alargun guztien autolikidazioa egin dezan, aitortutako pentsioaren eta lanbide arteko gutxieneko soldataren arteko aldea kobratzea errazte aldera.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 15ean

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuia premiatzen da 293/2006 Foru Agindua alda dezan eta Gizarte zerbitzuei buruzko Foru Legean agertzen den testua jar diezaion.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernuia premiatzen da 293/2006 Foru Agindua alda dezan eta Gizarte zerbitzuei buruzko Foru Legean agertzen den testua jar diezaion".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. arti-

kuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahaliko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du hurrengo Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Menpeko pertsonen beren bizilekuan bertan zainketa-zerbitzuak lortzeko eta pertsona horiek zaintzen dituzten familiei babesa emateko dirulaguntzetarako deialdia onesten duen abenduaren 22ko 293/2006 Foru Aginduari dagokionez, uste dugu foru erkidegoko eta estatuko legeen zenbait alderdi ez dituela betetzen.

Foru agindu horretako AGINDU DUT atalean esaten denez, 20.000.000 euroko gastua onetsi da, aurrekontuetan kreditu nahikoa izatearen baldintzapean.

Gizarte zerbitzuei buruzko Legearen 48. artikuluan –“Prestazioen finantzaketa”– hauxe esaten da: “Kreditu horiek aski ez badira prestazio bermatu horiek finantzatzeko, handitu egin beharko dira”. Horrenbestez, parlamentu-talde honen iritziz, bien arteko kontraesana nabarmena da.

Halaber, dirulaguntzaren hilabeteko konputua kalkulatzeko, abenduaren 22ko 293/2006 Foru Dekretuan eskatzailearen familia-unitatearen per capita errenta aipatzen da. Menpekotasuna duten pertsonen laguntza emateari buruzko legearen 14.7. artikuluan, prestazioak aipatzen direnean, beti zehazten da Lurralde Kontseiluak erabakiko dituela, betiere eskatzailearen errenta eta ondarea kontuan hartuta.

Likidazioa egiteko bi formulak hartu beharko lirateke kontuan, eta betiere eskatzailearentzat onuragarriena aplikatuko da.

Foru aginduan, 3. ataleko c) idatz-zatian, ezarzen dira ere eskatutako laguntza ukatzeko kalkulak. Halaber, aipatu foru aginduak ezartzen du laguntza ukatzeko familia unitatearen ondarearen muga.

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldearen iritziz, muga horiek gehiegizkoak dira eta, hori dela eta, erabaki proposamen hau aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du abenduaren 22ko 293/2006 Foru Agindua alda dezan eta Gizarte zerbitzuei buruzko Foru Legean agertzen den testua jar diezaion.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du abenduaren 22ko 293/2006 Foru Agindua alda dezan eta dirulaguntzak emateko aplikatuko diren bi modalitateak jaso ditzan –A) familia-unitatearen per capita errenta, B) eskatzailearen errenta eta ondarea–, eta beti eskatzailearentzat onuragarriena aplikatu dezan.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du familia-unitateko per capita errentaren kalkuluan 100.000 euroko zenbatekoa 200.000 eurora igo dezan. Izan ere, ohiko etxebizitza ondarearen balio osotik salbuetsita badago, baliteke hori kaltegarria izatea balio baxuko etxebizitza eduki baina beren bizitzan zehar aurreztu duten adineko pertsonentzat, eta pertsona horiek, nahiz eta logikoa izan beren ondarea ezarritako baremoaren arabera kontuan hartzea, ez dute menpekotasunagatik dirulaguntza eskuratzeko eskubiderik izanen.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 15ean

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da landa-inguru- etan merkataritza txikia babesteari eta hari eusteari buruzko plan bat presta eta aurkez dezan.

ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Aralar parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da landa-inguruetan merkataritza txikia babesteari eta hari eusteari buruzko plan bat presta eta aurkez dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko eledun Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren

babesean, ondoko mozioa aurkeztu dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioak:

Landa-inguruetan saltoki tradizionalak desgertzeak beste zailtasun bat dakar zerbitzuak eskuratu ahal izateko; hain zuzen, herri horietako herritarrak mantentzeko premiazko produktuak eskuratzeko.

Beharrezkoa da neurri publikoak hartzea, premiazko zerbitzu hori mantentzea ahalbidetzeko.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du landa-inguruetan merkataritza txikia babesteari eta hari eusteari buruzko plan bat presta eta aurkez dezan, eta herri txikietan bizi diren pertsonen eman beharreko zerbitzuetan har dezan.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 15ean

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da N-121-A errepideko zenbait zatitan egitekoak diren hobetze lanak planifikatu eta gauzatzean, kontuan har dezan oraingo lanak baliagarriak izan behar luketela balizko bikoizketa baterako.

ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Aralar parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da N-121-A errepideko zenbait zatitan egitekoak diren hobetze lanak planifikatu eta gauzatzean, kontuan har dezan oraingo lanak baliagarriak izan behar luketela balizko bikoizketa baterako".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroa-

ko Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko eledun Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioak:

N-121-A errepideak jasaten duen trafikoak, batez ere salgaien garraioarekin eta, horrenbeste, trafiko astunarekin loturikoak, argi uzten du

eginen diren hobetze lanak ez direla nahikoak izanen epe laburrean.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du N-121-A errepideko zenbait zatitan egitekoak diren hobetze lanak planifikatu eta gauzatzean, kontuan har dezan oraingo lanek baliagarriak izan behar luketela balizko bikoizketa baterako.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 15ean

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Irurtzungo saihebidetako lanak errepideak arintzeko planean sartu eta 2007an zehar has daitezen.

ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Aralar parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da Irurtzungo saihebidetako lanak errepideak arintzeko planean sartu eta 2007an zehar has daitezen".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentarietako zuzenketak aurkeztu ahal dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko eledun Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dio Nafarroako

ko Parlamentuko Mahaiari, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioak:

Legegintzaldi honetan zehar gobernuak Irurtzungo saihebidetaz hitz egiten jardun du, eta hori egiteko konpromisoa hartu du. Bide hori egiteko epe ezberdinetarako konpromisoak hartu ditu, baina sistematikoki urratu ditu konpromiso horiek.

Hori dela-eta, Aralar parlamentu-taldeak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Irurtzungo saihebidetako lanak sartu ditzan gobernuak 2006. urtearen amaieran onetsitako errepideak arintzeko planean.

2. Halaber, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lan horiek 2007. urtean zehar has daitezen, eta ez daitezen 2009 baino beranduago buka.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 16an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

F saila:
GALDERAK

Galdera, 28/2005 Foru Legea urratzeagatik 2006an zehar zehapen bakar bat ere jarri ez izanaren arrazoiei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egindako galdera, 28/2005 Foru Legea urratzeagatik 2006an zehar zehapen bakar bat ere jarri ez izanaren arrazoiei buruzkoa. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaioten:

Tabakismoaren aurkako osasun neurriak ezarri eta tabakoaren produktuen salmenta, kontsumoa eta publizitatea arautzeko 28/2005 Legea indarrean sartu zenetik urtebete iragan denean, hedabide batzuen bidez jakin dugu Nafarroa dela legea aplikatu den lehen urtean aipatu araua hausteagatik zehapen bakar bat ere ezarri ez duen erkidego-etako bat.

Zehapenik ez ezartzea berri ona izanzen litzateke horrek esan nahiko balu legea oro har betetzen dela eta ez dela beharrezkoa administrazio publiko eskudunak –kasu honetan, aipatu 28/2005 Legearen 22.2. artikuluan ezarritakoaren arabera, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioa– hertsapen neurriak hartzea.

Hala ere, edozein herritarrentzat nabarmena da, eta halaxe azpimarratu dute hedabideek, lan-tokietan eta zerbitzu publikoetan tabakoa kontsumitzeari jarritako mugak oro har errespetatzen badira ere, ikuskizunetarako eta ostalaritzako lokaletan askotan ez direla muga horiek betetzen. Legea indarrean sartu zenetik urtebetera, debekatura dagoen lokal batzuetan erre egiten da, beste batzuetan jarri beharreko seinaleak ez daude jarrita, eta, azkenik, beste batzuetan ez dira bereizi erretzaileentzako eta ez erretzaileentzako tokiak.

Hori dela eta, harritzekoa da zehapenik ez izatea, eta horrek adierazten du legea betetzeko borondaterik ez dagoela, edota ikuskatze eta kontrol lanak egiteko eta espedienteen instrukziorako baliabide egokirik ez dagoela.

Hori guztia gogoan izanik, Nafarroako Gobernuak honako galdera honi erantzun diezaieton nahi dugu: zergatik 2006. urtean ez da zehapen bakar bat ere jarri 28/2005 Legea urratzeagatik?

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 10ean

Foru parlamentaria: Miguel José Izu Belloso

Galdera, Logroñon azaroaren 30ean eta abenduaren 1ean autonomia erkidegoetako hezkuntza kontseilariekin egindako bilerari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egindako galdera, Logroñon azaroaren 30ean eta abenduaren 1ean autonomia erkidegoetako hezkuntza kontseilariekin egindako bilerari buruzkoa. Galdegileak eskatu du Hezkuntza Batzordean ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Patxi Telletxea Ezkurak, Aralar parlamentuko taldeko kide denak, Nafarroako Legebiltzarreko araudiari men eginez, honako galdera egiten dio

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza kontseilariari. Erantzuna ahoz erantzutea eskatzen du Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordean.

Azaroaren 30ean eta abenduaren 1ean Nafarroa, Balear Irlak, Valentzia, Madril, Gaztela eta Leon, Errioxa eta Murtziako Hezkuntza kontseilariak Logroñon bildu ziren. Bertan curriculum bateratu baten proposamena egin zuten eta adierazi ezarri eginen zutela delako curriculum hori datoren ikasturtean.

Zertara joan zen Nafarroako Hezkuntza kontseilaria bilera hartara eta zer izan zen bertan hitzartu zena? Han erabakitakoak zein ondorio izanen du Nafarroan ezarriko den Hezkuntza politikan eta plangintzan?

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 11n

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, Nafarroako Gobernuko lehendakaria 2007ko urtarrilaren 13an bakearen aldeko eta indarkeriaren aurkako elkarretaratzera ez joan izanaren benetako arrazoiari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egindako galdera, Nafarroako Gobernuko lehendakaria 2007ko urtarrilaren 13an bakearen aldeko eta indarkeriaren aurkako elkarretaratzera ez joan izanaren benetako arrazoiari buruzkoa. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak, Legebiltzarreko Erre-

gelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaiola:

Hedabideen bidez jakinarazi zenez, Nafarroako Gobernuko lehendakaria ez zen joatekoa Iruñean urtarrilaren 13rako bakearen alde, indarkeriaren aurka eta abenduaren 30ean Barajasen ETak eginiko atentuari erantzuteko deituta zegoen elkarretaratzera, egun horretan bertan Extremaduran energia berriztagarriei buruzko hitzaldi bat emateko konpromisoa hartua zuelako. Gobernuko lehendakariak ez zuen informazio hori gezurtatu.

Gobernuko lehendakaria bertan ez egotea deigarria izan zen; izan ere, bera buru duen alderdia, UPN, zen elkarretaratzeari atxikitako alderdietako bat, eta Sanz jaunak behin baino gehiagotan hartu du parte terrorismoaren aurkako manifesta-

zioetan, baita Nafarroatik kanpo ere, hildakoak eragiten dituzten atentaturik ez zegoen garaian. ETAK mantentzen zuen su-etena bi hildako utzi dituen eta herrialde osoa hunkitu duen atentatu basati baten bidez hautsi ondoren, Nafarroako Gobernuako lehendakariak terrorismoaren aurkako ekitaldi batera joan ordez beste jarduera batzuei lehentasuna ematea harrigarria izan zen foru parlamentari honentzat eta bere taldearentzat.

Gaur gure harridura areagotu egin da; izan ere, hedabideek jakinarazi dute Gobernuako lehendakaria ez zela energia berriztagarriei buruzko hitzaldi batera joan. Aldiz, Badajozen dagoen Villafranca de los Barrosko Alderdi Popularreko alkategaia,

antza denez adiskidea duena, aurkezteko ekitaldi batean parte hartu zuen.

Hori guztia gogoan izanik, Nafarroako Gobernuako lehendakariak honako galdera hauei erantzun diezaien eskatzen dut: zergatik ez zen joan 2007ko urtarrilaren 13an Iruñean egin zen bakearen aldeko eta indarkeriaren aurkako elkarretartzera? Nondik atera zen Extremadurara energia berriztagarriei buruzko hitzaldi batera joan behar zuela zioen informazioa?

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 16an

Foru parlamentaria: Miguel José Izu Beloso

Galdera, Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioari egoitza berria eraikitzeko dirulaguntza emateko erabilitako irizpideei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI TXENTXO JIMÉNEZ HERVAS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervas jaunak egindako galdera, Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioari egoitza berria eraikitzeko dirulaguntza emateko erabilitako irizpideei buruzkoa. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervasak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako lehendakari Sanz jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaien:

Galdera:

Zer irizpide izan ditu kontuan Gobernuak Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioari egoitza berria eraikitzeko dirulaguntza emateko?

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 16an

Txentxo Jiménez Hervas

Galdera, “Zortziko” deituriko biribilgunean izaten diren zirkulazio arazo- ei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI TXENTXO JIMÉNEZ HERVÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervás jaunak egindako galdera, “Zortziko” deituriko biribilgunean izaten diren zirkulazio arazo-
ei buruzkoa. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parla-
mentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari
Txentxo Jiménez Hervasek, Legebiltzarreko Erre-

gelamenduan xedatuarekin bat, honako galdera
hau aurkeztu dio Herri Lan, Garraio eta Komunika-
zio kontseilari Alvaro Miranda jaunari, Osoko Bil-
kuran ahoz erantzun dezan:

Berriozar eta Iruña artean dagoen “Zortziko”
deituriko biribilgunean, trafikoaren saturazioaren
ondorioz, zirkulazio arazo handiak izaten dira, eta
horrek arriskua dakar erabiltzaileentzat. Ba al du
departamentuak arazo horien berri?

Egoera horren ondorioz, departamentuak egin
behar al du jarduketarik arazoa konpontzeko?
Zein?

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 16an

Foru parlamentaria: Txentxo Jiménez Hervás

Galdera, Nafarroako Gobernuak Humanismo y Democracia Fundazioaren irregulartasunen ondoriozko erantzukizun politikoak bere gain har- tzea aurreikusia duen jakiteko buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko
urtarrilaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen
tramitera onartzea foru parlamentari Maiorga
Ramirez Erro jaunak egindako galdera, Nafarroa-
ko Gobernuak Humanismo y Democracia Funda-
zioaren irregulartasunen ondoriozko erantzukizun
politikoak bere gain hartzea aurreikusia duen jakite-
ko buruzkoa. Galdegileak eskatu du Osoko Bil-
kuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parla-
mentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru
parlamentari Maiorga Ramirez Errok, Legebiltzar-
reko Erregelamenduaren babesean, honako gal-
dera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, Osoko
Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioa-
rekiko Auzien Salak ezetsi egin du Humanismo y
Democracia fundazioak Gizarte Ongizate Depar-
tamentuak emandako aginduaren aurka jarritako
errekurtsoa. Haren bidez, fundazio horrek Domini-
kar Errepublikako ospitaleak kudeatzeko sistema
hobetzeko proiektua gauzatzeko dirulaguntza itzuli
behar zuela erabaki zuen.

Gaur egun, oraindik ebazpen judizialaren zain
daude fundazio horrek eginiko funts publikoen
kudeaketarekin loturiko hainbat afera eta, hori dela
eta, eskandalua oraindik ere handiagoa izan daiteke.

Fundazio horrek dituen lotura politikoak eta
bertan Nafarroako Gobernuarekin zerikusia duten
pertsonek parte hartu dutela kontuan hartuta, par-
lamentari honek jakin nahi du Nafarroako Gober-
nuak Humanismo y Democracia fundazioaren irre-
gulartasunen ondoriozko erantzukizun politikoak
bere gain hartzea aurreikusia duen eta zertan
zehaztuko diren erantzukizun horiek.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 24an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

Galdera, Reina Sofía Ospitaleko alergologia unitatea noiz jarriko den abian eta zer langile izanen dituen jakiteko buruzkoa.

FORU PARLAMENTARIANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egindako galdera, Reina Sofía Ospitaleko alergologia unitatea noiz jarriko den abian eta zer langile izanen dituen jakiteko buruzkoa. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Figueras Castellano, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Osasun kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2006an, alergia arazoak dituzten Tuterako pertsona batzuek sinadurak bildu eta kontseilariari

eman zizkioten; horien bidez, Tuterako Reina Sofía Ospitalean alergologia unitatea jartzea eskatu zuten. Osasun Departamentuak proposamena aztertzeko konpromisoa hartu zuen, eta, ondoren, aipatu unitatea 2007ko udaberrian abian jartzeko asmoa azaldu zuen.

2007ko aurrekontuetan, parlamentu-talde honek zuzenketa bat aurkeztu zuen, departamentuak hartutako konpromisoa estaltzeko, aipatu unitaterako langileak kontratatzeko eta unitatea kontseilariak ezarritako datan abian jarri ahal izateko, baina UPN eta CDN alderdiek ez zuten zuzenketa hori aintzat hartu.

Baliteke departamentua aztertzen aritzea alergologia unitate hori abian jartzea, baina, hala ere, hauxe jakin nahi dut:

Osasun Departamentuak noiz jarriko du abian Reina Sofía Ospitaleko alergologia unitatea?

Zer langile izanen ditu?

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 24an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, Larraungo haraneko baliabide hidrografikoei eta emari ekologikoei buruzko azterlana zer egoeratan dagoen jakiteko buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI TXENTXO JIMÉNEZ HERVAS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervas jaunak egindako galdera, Larraungo haraneko baliabide hidrografikoei eta emari ekologikoei buruzko azterlana zer egoeratan dagoen jakiteko buruzkoa. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman daki on.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervas jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du Lurraldearen Antolamendu, Ingurumen eta Etxebizitza kontseilari José Andrés Burguete Torres jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Galdera:

Zer egoeratan dago Larraungo haraneko baliabide hidrografikoei eta emari ekologikoei buruzko azterlana? Zer arrazoiren ondorioz atzeratu da azterlanaren amaiera? Zer jokabide du esleipena jaso zen enpresak azterlan horri dagokionez?

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 25ean

Foru parlamentaria: Txentxo Jiménez Hervás

Galdera, San José zentro publikoa aspalditik jasaten ari den egoera larriari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI FERNANDO PURAS GIL JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Fernando Puras Gil jaunak egindako galdera, San José zentro publikoa aspalditik jasaten ari den egoera larriari buruzkoa. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamendua-ren 179. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, San Jose zentro publikoa aspalditik jasaten ari den egoera larriari buruzko galdera hau, Nafarroako Gobernuak lehendakariari zuzendua, hurrengo osoko bilkura batean tramita dadin eskatu du:

San José zentroan ezgaitasun fisiko eta psikiko larriak eta sakonak dituzten 80 pertsona artatzen dira.

Zentro horretan gabezia larriak antzeman dira eta, horien ondorioz, egoera zaila da eta kezka sortu da erabiltzaileek jasotzen duten laguntzari buruz. Gizarte Ongizateko Departamentuak gabezia horiei buruzko informazioa eman du behin baino gehiagotan, baina denbora asko iragan den arren, suertatutako arazoei ez zaie konponbiderik eman.

San José zentroaren funtzionamenduari buruz informazio larriak argitaratu dira eta, besteak beste, ezgaitasun fisiko eta psikiko larriak eta sakonak dituzten pertsonak artatzen dituen zentro publiko horren aurkako salaketa aurkeztu da fiskalaren aurrean; gertaera horiek direla eta, zerbitzu publiko horrekin zerikusia duten alderdiak lehenbailehen argitu behar dira.

Halaber, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-tadeak bere kezka adierazten du Nafarroako Gobernuak onartutako konpromisoe-

tan dagoen atzerapenarengatik eta San José zentro berria gaur egun eta etorkizunean bertan dauden edo egonen diren ezgaitasuna duten pertsonen esku jartzeko dauzkan arazoengatik.

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldearen ustez, premiazkoa da arazo honi aurre egitea; izan ere, kezkatzen gaituena da zentroko egoiliarrei ematen zaizen zerbitzuaren kalitatea, eta beharrezkoa iruditzen zaigu Nafarroako Gobernuako lehendakariari galdera aurkeztea, azal dezan noiz jaso zuen bere Gobernuak San José zentroaren arazoei buruzko informazioa lehenengo

aldiz, zenbatetan jaso duen horri buruzko idatzizko informazioa, zer agindu eman dituen eta zer neurri hartu diren aipatu gabeziak konpontzeko.

Hori guztia dela eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak San José zentro publikoko funtzionamendu gabeziak konpontzeko Gizarte Ongizateko Departamentuak eta gobernurak eginiko zuzemenei buruzko galdera aurkeztu dio Nafarroako Gobernuako lehendakariari.

Iruñean, 2006ko abenduaren 21ean

Eleduna: Fernando M.^a Puras Gil

Galdera, 2007ko Aurrekontu Orokorretan Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen araubide iragankorrari buruzko 10/2003 Foru Legeko 29. artikulua aldatzen duen xedapen gehigarri bat onetsi eta horrek eragindako bidegabeberriari konponbidea emateko Nafarroako Gobernuak dituen asmo eta aurreikuspenei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egindako galdera, 2007ko Aurrekontu Orokorretan Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen araubide iragankorrari buruzko 10/2003 Foru Legeko 29. artikulua aldatzen duen xedapen gehigarri bat onetsi eta horrek eragindako bidegabeberriari konponbidea emateko Nafarroako Gobernuak dituen asmo eta aurreikuspenei buruzkoa. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari.

Zioen azalpena:

Nafarroako 2007ko Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua izapidetzerakoan,

UPN eta CDN alderdiek *in voce* zuzenketa aurkeztu zuten elkarrekin, Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen araubide iragankorrari buruzko 10/2003 Foru Legeko 29. artikulua aldatzen duen xedapen gehigarri bat gehitzen zuena. Aipatu xedapenaren bidez, eskubide pasiboen sistemaren ondorioetarako, Gizarte Segurantzaren edozein araubide publikotan edo horien ordezkotetan kotizatutako urteak aitortutako zerbitzu urtetzat hartuko dira, kasuan kasuko lan prestazioa eta administrazio publiko batean eginiko zerbitzuak aldi berean egiten diren kasuetan izan ezik.

In voce zuzenketa hori 2006ko azaroaren 30ean aurkeztu zen, proiektua Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontuen Batzordean eztabaidatu behar zen une berean eta, hori dela eta, parlamentu taldeek ez zuten nahikoa denborarik izan lege aldaketa horren edukia eta ondorioak aztertzeko. Zuzenketa ia eztabaidarik gabe onetsi zen bai batzordean bai Osoko Bilkuran, eta, azkenik, 2007ko Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 17/2006 Foru Legearen hogeita seigarren xedapen gehigarri bilakatu zen.

Aipatu lege aldaketak hobekuntza dakar ukitzen dituen funtzionarioen eskubide pasiboentzat; izan ere, Gizarte Segurantzaren kotizatutako urteak

aitortutako zerbitzu urte gisa hartuz gero, beren borondatezko erretiroko pentsioa handiagoa izanen da. Hala ere, neurri hori bat-batean eta funtzionarioen ordezkariekin negoziatu gabe hartu da, eta horren ondorioz, egoera bidegabeak sortu dira funtzionario talde batzuei dagokienez.

Lehenik eta behin, 10/2003 Foru Legearen xedapenen arabera, lege horrek ukitutako funtzionarioak, zenbait pentsiodun barne, sei hilabeteko epea izan zuten aurreko sistemarekin jarraitu nahi zuten edota arau horrek ezartzen zuen sistema berrira aldatu nahi zuten hautatzeko. Administrazio publikoek beharrezkoak ziren datu konparatiboak eman zizkien funtzionarioei, beren interesera hobeto egokitzen zen aukera egin zezaten; bista-koa denez, suposatzen zuten eskaintzen zitzaizkien baldintzak lege horretan azaltzen zirenak zirela. Funtzionario batzuek beste aukera bat egin zezaketen foru legea hain denbora laburrean eta aldatu den moduan aldatuko zela jakitera, baina orduan ez zegoen hori jakiterik; izan ere, orain onetsi den neurriaren moduko bat espresuki ezetsi zen 10/2003 Foru Legeari buruzko eztabaidan. Horren haritik, esan daiteke Nafarroako Parlamentuak arau hori onetsi zuenean zeukan fede onari traizio egin zaiola.

Bestalde, zenbait funtzionariok borondatezko erretiroa hartu dute 10/2003 Foru Legea indarrean sartu zenetik, legegilearen fede ona ziurtzat jota, hau da, borondatezko edo derrigorrezko erretiroaren baldintzak arau horretan ezarritakoak izanen

zirela segurutzat jota. Jakin izatera hain azkar aldatuko zela, beste erabaki batzuk hartu ahalko zituzten erretiroa hartzeko datari buruz.

Laburbilduz, bidegabekeria eragin zaie 10/2003 Foru Legearen xedapenen arabera aurreko pasiboen sistemari mantentzea hautatu zutenei edota sistema berriaren arabera erretiroa hartzea erabaki zutenei, gaur egun borondatezko erretiroa baldintza hobekin hartzeko aukera izanen dutenen aldean. Funtzionarioen bi talde sortu dira: erreforma dela-eta pribilegiatuak, eta erreformaren onuraz baliatzeko aukera izan ez dutenak.

Egoera hori konpon zitekeen egin den lege aldaketa funtzionarioen ordezkariekin ohiko negoziatio prozesuaren bidez egin izan balitz eta parlamentu-taldeek zuzenketak aurkezteko eta eztabaidatzeko aukera eraginkorra izan bagenu. Prozesu horretan, 10/2003 Foru Legea indarrean sartu zen uneraingo atzeraeraginezko mekanismoren bat azter zitekeen, araudi berriak eragin berbera izateko bere aplikazio esparruan sartzen diren funtzionario guztiengan, eta gaur egun sortu den bidegabekeria sentimendua saiheste aldera.

Galderaren edukia:

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Gobernuak azaldutako bidegabekeria egoera konpontzeko zer asmo duen azaltzea nahi dugu.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 22an

Eleduna: Miguel José Izu Belloso

Galdera, trenbidearen kiribilguneari, Etxabakoizko hirigintza garapenari eta hor dagoen Inquinasa enpresa irteteari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI AMANDA ACEDO SUBERBIOLA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak egindako galdera, trenbidearen kiribilguneari, Etxabakoizko hirigintza garapenari eta hor dagoen Inquinasa enpresa irteteari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galderak aurkeztu ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

Kontuan harturik Nafarroako trenbide-kiribilgunea eraikitzeari buruzko negoziazio eta akordioen bilakaerari, Etxabakoizko hirigintza-garapenari eta Inquinasa deritzon enpresa, Iruñeko kokaleku horretan dagoena, irteteari buruz dagoen informazioa;

Kontuan harturik ezen, argitaratu denez, nola baiteko akordio bat lortu dela Nafarroako Gobernuaren edo bere departamenturen baten eta/edo haren menpeko edo haren partaidetza duten sozietate publikoen eta aipaturiko enpresaren artean;

Kontuan harturik afera hau munta handikoa eta izaera estrategikokoa dela erkidegoarentzat, jarraian egiten diren galderari erantzutea eta beharrezkoa den dokumentazioa helaraztea eskatzen dugu.

• Ba al dago akordiorik gobernuaren eta enpresaren artean, eta, kasua bada, departamentueta-ko edo sozietate publikoetako edo partaidetzako sozietateetako edozeinen artean?

• Baiezkoan, horietako edozeinek enpresa honekin sinaturiko konpromiso edo akordioak eskuratu nahi genituzke.

• Gobernuak ba al dauka inolako partaidetzarik, edozein departamentu, erakunde nahiz enpresaren bitartez, enpresak izanen duen kokaleku berria definitu, eskaini edo zehazteko eginkizunetan? Baiezkoan, eta dokumentatua egonez gero, erakuts bitez frogagiriak, eta ez badago dokumentatua, azal bedi ea enpresak parte-hartze publikoa eskatu duen eta zein diren haren eskaerari baiezkoa edo ezezkoa emateko edo soluzioan bitarteko gisa aritzeko arrazoiak.

• Enpresaren lekualdatzean eta beste toki batean kokatzeko langintzan inolako zerikusirik al du Nasuinsak? Zer-nolakoa, zer baldintzatan adostua eta zer emaitza ekarri ditu? Baiezkoan, enpresa horrek Inquinasa deritzona dela-eta (gaur egun, Huntsman) harturiko edo eginiko konpromisoak eta/edo ekarpenak edo zuzemenak jasotzen dituzten akten kopiak eskuratu nahi genituzke.

• Ezarri al da eperik enpresa bere gaur egungo kokalekutik ateratzeko? Zein eta zergatik? Lanpostuak mantentzeari buruzko zer aurreikuspen du gobernuak?

• Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Departamentuak, edo harekin zerikusia duten enteek, sozietateek edo pertsonak, edo haren aginduz arituz, neurriren batean parte hartu al dute enpresaren kokaleku izandako lursaileko hirigintza-aukeretan, hark eragindako kutsaduraren inguruko aferetan, hark etorkizunari begira duen soluzioan? Bestela esanda: zer-nolako parte-hartze izan du departamentu horrek?

• Etxabakoitzen kokaturiko Inquinasa enpresaren balizko alde egite eta lekualdatzea dela-eta izandako zuzemen, konpromiso, eskaera, akordio eta abarri buruz dagoen edozein departamentu edo sozietate publikoren edozein dokumentazio ikusi nahi genuke.

Iruñean, 2006ko abenduaren 22an

Foru parlamentaria: Amanda Acedo Suberbiola

Galdera, “Nafarroako Unibertsitatea enpresa lankidearen osasun-laguntza” izeneko kontusailari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egindako galdera, “Nafarroako Unibertsitatea enpresa lankidearen osasun-laguntza” izeneko kontusailari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galderak aurkeztu ditu, Osasun kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

Nafarroako 2006ko aurrekontu orokorretan, Nafarroako Unibertsitatea enpresa laguntzailearen osasun laguntzarako kontusail bat agertzen da, 2.000.000 euroko diru-kopurua duena. Diru hori

UPN-CDNren zuzenketa baten ondorioz ezarri zen, eta lehen aldia da kontusail hori Nafarroako aurrekontuetan agertzen dela.

2007. urteko Nafarroako aurrekontu orokorretako Prestazioak eta Itunak programan, berriro ere agertzen da “Nafarroako Unibertsitatea enpresa lankidearen osasun-laguntza” izeneko kontusaila, eta 8.000.000 euroko diru-kopurua jasotzen du.

Bestalde, Osasun kontseilariak emandako erantzunean adierazten denez, 2006ko irailaren 30ean, 2 milioi euroko kontusailetik ez zegoen gastatuta euro bakar bat.

Horrenbestez, hauxe jakin nahi dugu:

1.- Zergatik ezarri da kontusail hori? Zer xede du?

2.- Baldin eta 2006an behar zen kontusaila 2.000.000 eurokoa bazen, eta irailaren amaiera aldera ukitu gabe bazegoen, nolatan ezarri du 8.000.000 euroko diru-kopurua Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuan? Azalpen zabal bat eskatzen dugu.

Iruñean, 2006ko azaroaren 20an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

Galdera, Comisión de navarros en Madrid izeneko elkarte bati buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI JOSÉ LUIS IZCO BIARGE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak egindako galdera, Comisión de navarros en Madrid izeneko elkarte bati buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José

Luis Izco Biargek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak idatziz erantzun dezan:

Gauza jakina da Comisión de navarros en Madrid deituriko talde batek egutegi bat argitaratu duela, Espainiako gerra zibila eragin zuen kolpe faxista argi eta garbi iradokitzen duena.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

– Ba al daki Nafarroako Gobernuak elkarte hori existitzen dela?

– Nafarroako Gobernuak elkarte horrekin inolako harremanik dauka edo izan du?

– Elkarte horrek inoiz inolako laguntza edo dirulaguntzarik jaso al du?

– Gobernuak ba al dauka asmorik kolpismora nabarmenki bultzatzen duten horrelako jarduketak

deitoratzeko neurriren bat hartzeko?

Iruñean, 2006ko abenduaren 28an

Foru parlamentaria: José Luis Izco Biarge

Galdera, Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak departamentuan gauzatu duen hizkuntza politikari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egindako galdera, Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak departamentuan gauzatu duen hizkuntza politikari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Patxi Telletxea Ezkurak, Aralar parlamentuko taldeko kide denak, Nafarroako Legebiltzarreko

araudiari men eginez, honako galdera egiten dio Nafarroako Gobernuari. Erantzuna idatziz igortzea eskatzen da.

Foruzaingoa eta euskara

Zein da Lehendakaritza Justizia eta Barne Kontseilariak bere Departamentuan ezartzen duen hizkuntza politika?

Herritarrari euskaraz zerbitzua emateko, zer neurri hartu ditu?

Eremu euskaldunean eta mistoan herritar euskaldunak atenditu ahal izateko zenbat foruzain daude?

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 9an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, Tuterako nekazaritza-elikagaien hiria jarriko den poligonoko obren exekuzioari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI AMANDA ACEDO SUBERBIOLA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak egindako galdera, Tuterako nekazaritza-elikagaien hiria jarriko den poligonoko obren exekuzioari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera aurkeztu du, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Tuterako nekazaritza-elikagaien hiria jarriko den poligonoko obren exekuzioari eta ingurumen-betebeharrak ez betetzeari buruz agertu diren informazioak ikusirik, honako galdera hauek egiten dira:

1. Zure departamentuak aztertu al du nekazari-tza-elikagaien hiria delakoaren kokalekurako zer aukera dagoen? Baiezkoan, datuak izan nahi genituzke Nafarroako eskualdeei, emandako txostenei eta lehentasunei buruz, bai eta, kasua bada, eginiko aukeraren justifikazioaren berri ere.

2. Zure departamentutik jarduera horren kokalekuari buruzko informaziorik igorri al da Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentura, Tuterako Udalera, Nasuinsara edo beste edozein entitatetara? Baiezkoan, informazio horri buruzko dokumentazioa izan nahi nuke.

3. Nork erabaki zuen instalazio horren kokalekua: zure departamentuak, beste departamentu batek, ala ez daukazu horren berri?

4. Zure departamentuak inolako beharrian-eskakizunik egin al du aipagai dugun instalazioa kokatzeko? Zer neurritan, eta nola? Eta kasu horretan, Tuteran gauzatzen ari den ekintza zabalagoa al da zure departamentuak egin zituen eskakizunak baino?

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 12an

Foru parlamentaria: Amanda Acedo Suberbiola

Galdera, jakiteko zer udaletako liburutegi gelditu diren, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren aginduz, liburuak erosteko Kultura Ministerioak ematen duen dirulaguntzarik gabe.

FORU PARLAMENTARI HELENA BERRUEZO VALENCIA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egindako galdera, jakiteko zer udaletako liburutegi gelditu diren, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren aginduz, liburuak erosteko Kultura Ministerioak ematen duen dirulaguntzarik gabe. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Helena Berruezo Valenciak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Kultura eta Turismo kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Kultura Ministerioak 300.000 euro eman zituen Nafarroako Liburutegi Publikoen Sarerako liburuak erosteko. Liburu horiek Nafarroako liburu-saltzaileei erosi behar zaizkie eta Nafarroako liburutegi publiko guztien artean banatu behar dira.

Duela gutxi jakin dugu Kultura Departamentuak erabaki duela 1.500 biztanle baino gutxiagoko herrietan dauden liburutegiak ez direla izanen ministerioak emandako diruaren onuradun.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

- Zenbat liburutegi eta zer udaletakoak dira Kultura kontseilariaren aginduz Kultura Ministerioak liburuak erosteko emandako dirulaguntzarik gabe geratuko direnak?

- Zer liburu-dendetan eskuratu dira Kultura Ministerioak emandako dirulaguntzaren kargura erositako liburuak?

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 15ean

Foru parlamentaria: Helena Berruezo

Galdera, Errege-abelbidea eta Erronkarikoa lotzen dituen E-18 adarrak bide-zorra izan behar duela dioen araudia noiz betearaziko den jakiteko.

FORU PARLAMENTARI MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egindako galdera, Errege-abelbidea eta Erronkarikoa lotzen dituen E-18 adarrak bide-zorra izan behar duela dioen araudia noiz betearaziko den jakiteko. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko eledun José Miguel Nuinek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

Peñan (Xabier) bada hesi bat, ehiza barruti pribatu batean dagoena eta errege-abelbidearen E-18 adarrera –Sos del Rey Católicotik Erronkariko errege-abelbidera doana hain zuzen– pasatzea eragozten duena.

Errege-abelbideko pasabide hori deskribatuta dago 1924ko Nagoreren errege-abelbideen liburu-ko IV. Liburukiaren 87. orrialdean. Indarrean dagoen araudiak ezartzen duenez, errege-abelbideek eta haien adarrek bertatik igarotzeko zortasuna dute; beraz, aipatu hesia legearen aurkakoa da.

Nafarroako Mendi Federazioak egoera hori salatu egin du, eta 700 mendizale baino gehiago bildu ditu Peña mendian, egoera salatzeke.

Egoera arriskutsuak ere izan dira, ehiza barrutiko jabeek zaindari armatu bat kontratatu baitzuten mendizaleei handik igarotzea galarazteko.

2005eko azaroan, foru parlamentari honek galdera bat egin zion Gobernuari gai horri buruz, eta 2005eko abenduaren 16an Gobernuak erantzun zuen garai hartan Xabierko dermioko abelbideak sailkatzen ari zirela.

Eta gehitu zuen dauden abelbideen sailkapena eta mugaketa behin eginda, horien barna ibiltzeko ez zuela eragozpenik egon behar.

Hala ere, foru parlamentari honek duen informazioaren arabera, arazoa ez da konpondu oraindik eta Nafarroako Gobernuak ez du betearazi Errege-abelbidea eta Erronkarikoa lotzen dituen E-18 adarrak bide-zorra izan behar duela dioen araudia.

Horrenbestez, hauxe jakin nahi dugu:

– Noiz betearaziko du Nafarroako Gobernuak Errege-abelbidea eta Erronkarikoa lotzen dituen E-18 adarrak bide-zorra izan behar duela dioen araudia?

– Nafarroako Gobernuak zergatik behar du hainbeste denbora legea betearazteko?

– Nafarroako Gobernuak prozesurik edo zehapen espedienterik ireki edo izapidetu al du adar horretatik igarotzea eragozten dute ehiza barruti pribatuko jabeen aurka? Zehapenik ezarri al du?

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 19an

Foru parlamentaria: José Miguel Nuin Moreno

Galdera, gaixotasun arraroak dituzten gaixoak babesik gabe ez daitezen gelditu edo administrazioak utzikieriaz jokatu duela ez dezaten iritzi Osasun Departamentuak prozedura bat abian jartzeko duen asmoari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egindako galdera, gaixotasun arraroak dituzten gaixoak babesik gabe ez daitezen gelditu edo administrazioak utzikieriaz jokatu duela ez dezaten iritzi Osasun Departamentuak prozedura bat abian jartzeko duen asmoari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

Iragan abenduan Nafarroako herritar batek idazki bat igorri zidan, bere gaixotasunaren berri emateko eta gaixotasunaren alderdi batzuk azaltzeko. Ziurrenik, gaixotasun arraro horietako baten aurrean gaude.

Gaixotasun hori duen pertsona kexatzen da 2006ko otsailaren 25ean Nafarroako Ospitalean ingresatu zutelako bere alabarekin batera proba batzuk egiteko, eta urriaren 11n egindako proben emaitzak oraindik ez zituztelako.

Gaixoak eskatzen du prozedura estandarretatik kanpo dauden prozesuak eta bideak abian jar daitezela ezohikoak diren konponbideak bilatzeko.

Eskaera horren asmoa da babesgabe ez sentitzea eta espezialista batzuen borondate onaren menpe egon behar ez izatea. Hori dela-eta, honako galdetzen dugu:

Osasun Departamentuak ba al du asmorik prozedura bat abian jartzeko, gaixotasun arraroak dituzten gaixoak babesik gabe ez daitezen gelditu edo administrazioak utzikieriaz jokatu duela ez dezaten iritzi?

Galdutzat eman behar al da gaixotasun arraro deiturikoen diagnostikorako zirkuitu ofizialak ezartzeko aukera eta bide pertsonalak bilatzen ibili beharra al dago?

Zer iritzi du Osasun Departamentuak gaixo honen erreklamazioari buruz?

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 16an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, entzumen-urritasuna dutenek hezkuntza sisteman dituzten arazoei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egindako galdera, entzumen-urritasuna dutenek hezkuntza sisteman dituzten arazoei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Bellosok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Nafarroako Gorren Elkarteak parlamentu-talde honi jakinarazi dio zenbait arazo pairatzen dituela kolektibo horrek hezkuntza-sistemari dagokionez. Dirudienez, lehenasunez entzumen-urritasuna duten ikasleentzako dagoen ikastetxe bakarra Víctor Pradera ikastetxe publikoa da, eta bertan matrikulatutakoen kopurua izugarri handitu da azken ikasturteotan; horren ondorioz, ikasle horiei ematen zaien laguntzaren kalitateak behera egiteko

arriskua dauka. Bestalde, Nafarroako hezkuntza-sisteman ez dago irakaslerik zeinu-mintzairan espezialista denik.

Hori guztia gogoan izanik, Nafarroako Gobernuak honako galdera hauei erantzun diezaien nahi dugu:

Sorturiko arazoak konpontzeko zer neurri hartzeko asmoa du? Entzumen-urritasuna duten ikasleei lehenasunez zuzendutako beste ikastetxerik eskaintzeko asmorik ba al dauka? Zeinu-mintzairan espezialistak diren irakasleak prestatu edo kontratatzeko asmorik ba al dauka?

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 22an

Foru parlamentaria: Miguel José Izu Beloso

Galdera, jakiteko Osasun Departamentua gauza den Nafarroako Gorren Elkarteak eginiko eskaerak betetzeko.

FORU PARLAMENTARI ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egindako galdera, jakiteko Osasun Departamentua gauza den Nafarroako Gorren Elkarteak eginiko eskaerak betetzeko. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernu-ko Osasun Departamentuari, idatziz erantzun diezaioten:

Iragan urtarrilaren 17an bilera egin nuen Nafarroako Gorren Elkartearen ordezkariekin, eta, besteak beste, elkarte horretako buruarekin. Hona hemen elkarte horrek osasunaren arloan egin dizkigun eskariak:

1.- Gorreriaren detekzio goiztiarrerako bideak jartzea, eta detektatu ondoren, beharrezkoak diren bideak sortzea jaio berriaren urritasuna ezagutu ondorengo zainketak eta orientabideak elkarrekin lankidetzan eta haien babesarekin egiteko. Elkarreko ordezkarien iritziz, lan egiteko modu horrek ziurtasun falta, egonezina eta alferrikako gastuak saihesten ditu hein batean.

2.- Ongi entzuteko beharrezkoak diren aparailuei –audifonoak– dagokienez, Oti 16 urte bitartera dirulaguntzak ematen dira horiek eskuratzeko, baina 16 urtetik gorakoentzat ez da dirulaguntzarik ematen.

Osasun Departamentua gauza al da eskaera horiek betetzeko, hau da, egokitzat jotzen dituen bideak erabiliz laguntza protokolo bat sortzeko elkarrekin batera, arazoari tratamendu egokiagoa emateko?

Osasun Departamentuak ba al du asmorik 16 urtetik gorako pertsonen audifonoak diruz laguntzeko?

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 22an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, jakiteko “Nafarroako Erresuma. Lur anitza” izeneko turismo-kanpainan zergatik ez den irizpide bateratua erabili Nafarroa izendatzeko kanpainako hizkuntzetan.

FORU PARLAMENTARI MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egindako galdera, jakiteko “Nafarroako Erresuma. Lur anitza” izeneko turismo-kanpainan zergatik ez den irizpide bateratua erabili Nafarroa izendatzeko kanpainako hizkuntzetan. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Bellosok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Hizkuntza ezaguerak dituzten herritar batzuk harrিতa agertu dira Kultura eta Turismo Departamentuak Nafarroaren izena turismoa sustatzeko ekimenetan nola erabiltzen duen ikusirik; hain zuzen, “Nafarroako Erresuma, lur anitza” eslogana Europako zenbait hizkuntzetan erabiltzen duenean.

Normala denez, gaztelaniaz “Navarra” izena erabiltzen da, euskaraz, “Nafarroako Erresuma”, eta, frantsesez, berriz, “Royaume de Navarre”.

Hizkuntza bakoitzean ohikoa den foru erkidegoaren izena erabiltzeko irizpidea hautsi egiten da ordea ingelesaren kasuan. Erabiltzen den eslogana “Kingdom of Navarra” da, eta ez aspalditik ingelesez lurralde hau izendatzeko erabili den “Navarre” terminoa (urrunera joan gabe, Shakespeareren pertsonaia batek “Ferdinand, King of Navarre” izena du). Gainera, Kultura eta Turismo Departamentuak berak “Navarre” izena erabiltzen du ingelesez egiten dituen argitalpen guztietan, web orria barne.

Irizpide egokia litzateke beti “Navarra” hitza erabiltzea gure lurraldea edozein hizkuntzetan emateko, hizkuntza bakoitzean dagokion izena erabiltzearena bezain egokia. Logikoa ez dena da bi irizpide horiek nahastea.

Hori guztia gogoan izanik, Nafarroako Gobernuak honako galdera hauei erantzun diezaien nahi dugu:

“Nafarroako Erresuma. Lur anitza” izeneko turismo-kanpainan zergatik ez da irizpide bateratua erabili Nafarroa izendatzeko kanpainako hizkuntzetan? Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik ingelesez erabiltzen den eslogan okerra zuzentzeko?

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 23an

Foru parlamentaria: Miguel José Izu Belloso

Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak asmorik ba ote duen Etxalarren landako internet zerbitzu bat jarri eta egun itzalean dauden gunek itzalpetik ateratzeko.

FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak asmorik ba ote duen Etxalarren landako internet zerbitzu bat jarri eta egun itzalean dauden gunek itzalpetik ateratzeko. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikulua eta hurrengo babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion.

Etxalarren ez dago ADSLra konektatzeko aukerarik. 2006an, Eusko Alkartasunaren parlamentu-taldeak Parlamentuan eginiko bi galdera tarteko, landa-interneteko Iberbanda zerbitzua ezarri zen udalerrian. Errepikagailua Frainen kokatuta dago, telebista-berrigorgailuaren ondoan.

Horrek esan nahi duena da, Etxalarren kasuan, zerbitzu hau eskuratu ahal dutela soilik Fraingo seinalea jasotzen duten etxebizitzek. Gainerakoek, telebistari dagokionez, tokiko berrigorgailuen estaldura daukate, nahiz eta Nafarroako Gobernuak, Opatelen bitartez, udalerrri guztia estaliko duten errepikagailuak instalatzeko proiektu bat duen. Telebista Fraindik ikusten ez duten etxebizitza horiek ez dute landa-interneteko zerbitzua eskuratzetik, eta hori, jakina, oztopo bat da informazioaren teknologien onurez baliatzeko.

Horretarako soluzioa da Nafarroako Gobernuak telebista-berrigorgailuen sarea ezartzea eta, horrekin batera, interneterako berrigorpen-antena ipin diezazkiela –bistan da proposamen hori litza-tekeela egokiena– edo, bestela, Nafarroako Gobernuak internet-seinalerako berrigorpen-antena instalatzea gaur egun dauden itzalguneei zerbitzua eman ahal izateko moduko puntu estrategikoetan.

Galdera:

Nafarroako Gobernuak asmorik ba al du Etxalarren landako internet zerbitzu bat jarri eta egun itzalean dauden gunek itzalpetik ateratzeko?

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 24an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

Galdera, jakiteko Osasun Departamentua prest ote dagoen kontuan hartzeko Nafarroako osasun larrialdietako profesionalak haserre egoteko dituzten arrazoiak eta konponbideak bilatzen saiatzeko.

FORU PARLAMENTARI ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egindako galdera, jakiteko Osasun Departamentua prest ote dagoen kontuan hartzeko Nafarroako osasun larrialdietako profesionalak haserre egoteko dituzten arrazoiak eta

konponbideak bilatzen saiatzeko. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Figueras Castellano, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Osasun kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako osasun larrialdietako langile-talde batek beren haserrea adierazi digu, haien ustez osasun-garraioaren zerbitzua urrun dagoelako asegarrria izatetik. Zehazki esanda, honako puntu hauetan laburbil daitezke haien haserrearen zergatiak:

1. Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuak 90eko hamarkadan kanon bakarraren inguruan sorturiko privatizazio sistemak agerian utzi du sektorearen egoera; izan ere, Nafarroatik 17 enpresa pasa dira eta profesionalak 10 subrogazio pairatu dituzte. Kostuei ezin zaie aurre egin, eta horregatik erretiratzeko dira, esleipenak amaitu gabe. Enpresa horiek buru-belarri interes pribatuaren alde jarduten dute, zerbitzu publikoaren kaltean.

2. Sektorea privatizaziora eramatean kostuak aurreztearen ondorioz, material urria duten ambulanzietan egiten da, batzuetan, osasun garraio programatu eta ospitale artekoa, eta langile bakarra gidaria izanik, dekretu zaharkitu batek ezartzen duenari jarraituz; horrela, zerbitzu-ematearen kalitateari kalte egiten zaio.

3. Anbulantzia-zerbitzua kontrolatu, antolatu eta kudeatzen duen erakunderik ez dago.

4. Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuak kontrolik ez egiteak eta privatizazioak kalitatearen gainbehera orokorra eragiten dute gizartearentzat premiazkoa den zerbitzu batean. 90eko hamarkadan sorturiko eredu bat da, guztia sektore pribatuaren eta zenbait enpresaren interes ekonomikoaren probetxurako utzi duena.

Ez da lehen aldia arazo hau Parlamentuan eztabaidatu eta langileentzat irtenbide asegarririk aurkitzen ez denekoa. Proiektu bat helarazi digute, oinarrizko zenbait helburu biltzen dituenak: zerbitzua, administrazio-antolaketa, antolaketa operatiboa, koordinazio-baliabideak, mugikorak eta giza baliabideak, operatibotasuna.

Horrenbestez, galdera hauei erantzuna ematea eskatzen dugu:

Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua prest al dago Nafarroako osasun larrialdietako profesionalak haserre egoteko dituzten arazoak aztertzeke eta horri konponbideak bilatzen saiatzeko?

Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua prest al dago aipagai dugun zerbitzua Osasun Departamentuak ematea, eta privatizatuta ez segitzea, aztertzeke?

Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua prest al dago gaingiroki taxututako proiektua eta proposaturiko helburuak langileekin batera aintzat hartu eta eztabaidatzeko?

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 24an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, UNEDen Tuterako ikastetxe elkartuari buruzkoa.**FORU PARLAMENTARI PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egindako galdera, UNEDen Tuterako ikastetxe elkartuari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu dio Hezkuntza kontseilariari, Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalaren ikastetxe elkartuko partzuergoaren patronatuko lehendakaria den aldetik. Idatzizko erantzuna igor deza-la eskatzen dio.

1.- Tuterako Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalaren ikastetxe elkartuaren kontabilitatean egiaztatu egiten al dira gastu gisa aurkezturi-

ko kontusailak, haiei dagozkien kontabilitate-idazpenetara joz?

2.- Kontabilitate bereiziak egiten al dira unibertsitate-hedapeneko ikastaroetarako eta gastu orokorretarako? Banku-kontu bereiziak al dituzte? Patronatuak ba al daki zein den unibertsitate-hedapeneko ikastaroen kontuaren balantzea?

3.- Gastu orokorren kontuak bere gain hartu al du unibertsitate-hedapeneko ikastaroetan azken bost urteotan sorturiko kontabilitate-kontusailakoren bat?

4.- Unibertsitate-hedapeneko ikastaroetarako dirulaguntzak bideratzen direnean, nola entregatzen dira: unibertsitate bakoitzeko ala aurkeztutako ikastaro bakoitzeko? Ikastaro bakoitzeko entregatzen badira, pentsatzekoa da ezen, zenbat eta ikastaro gehiago eskatu, orduan eta dirulaguntza handiagoa entregatuko direla. Hori horrela baldin bada, zergatik entregatu ziren 2004an Tuterako UNEDen 15 ikastaro egiteko dirulaguntzak, 8.000 euroko zenbatekoa egiten zutenak, eta haietako sei ez ziren egiten?

5.- 2005ean honako dirulaguntzak esleitu zitzaizkion Tuterako UNEDI: "Imágenes: Alimentación, Sociedad y vida cotidiana de 1846 a 1956" eta "Últimos Avances en Física" ikastaroa eta erakusketa. Ikastaro horiek egin al ziren?

6.- Azken bost urteotan aurrekontu-defizitik izan al da kontu orokorretan? Zer dela-eta hartzen ditu Nafarroako Gobernuak bere gain defizitak eta inbertsioak?

7.- Zergatik, irakasle batzuen kasuan, antzeko ordu-kopuruak eta haien ardurapean antzeko irakaskaiak izanik, % 50eko aldeak daude zenbatekoen artean?

8.- 2001eko azaroaren 30ean akta bidez aitortu zen zuzendariari eskusibotasuna ez zitzaiola eskatuko. Zer esan nahi du "eskusibotasunik ez" horrek? Zuzendaria kudeaketaz arduratu al daiteke 2007an 2001eko denbora bera erabiliz, eta horrek kudeaketan eraginik izan gabe?

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 25ean.

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, minbiziak Nafarroan eskualdeka duen eraginari buruzkoa, eta jakiteko gaixotasun horrek Sakanan eragin handiagoa izateak zerikusia izan dezakeen bertan gai kutsagarriak igortzen dituzten industriak egotearekin.

FORU PARLAMENTARI ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egindako galdera, minbiziak Nafarroan eskualdeka duen eraginari buruzkoa, eta jakiteko gaixotasun horrek Sakanan eragin handiagoa izateak zerikusia izan dezakeen bertan gai kutsagarriak igortzen dituzten industriak egotearekin. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Figueras Castellano, Legebiltzarreko Erregela-

menduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu dio Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

Azken hiruzpalau urteotan, Sakana eskualdean eta bereziki Altsasun –hori hartu dugu erreferentzia, eta gunerik populatuena da, 7.500 biztanle baititu–, nabaritu da minbiziaren ondoriozko heriotzak modu beldurgarrian handitu direla.

Minbizi-motak dira, batez ere, arnas eta digestio aparatuetakoak. Uneotan, minbiziak foru erkidegoan hilkortasunik handiena eragiten duten faktoreetako bat da; dena den, parlamentu-talde honek ez daki eskualde batzuetan beste batzuetan baino joera handiagoa dagoen gaitz horren agerpeneko. Gauza nabaria da, ordea, aipagai dugun eskualdean enpresa kutsatzaileak egon direla, hala nola zementua egitekoak eta aluminioa lantzekoak.

Horregatik guztiagatik, ondoko galderari erantzutea eskatzen dut:

1. Nafarroako Gobernuako Osasun Departamentuak ba al dauka inolako azterlanik gaitza foru erki-degoko eskualdeetan nola banatua dagoen agertzen duenik, herritarrentzako informazio gehiagoren iturri gisa?

2. Nafarroako Gobernuako Osasun Departamentuaren ustez, Sakana eskualdean gaitzak duen eraginak zerikusirik izan al lezake atmosfera kutsagaiak igortzen dituzten industria batzuk bertan kokatuta egotearekin?

3. Nafarroako Gobernuako Osasun Departamentuak egin al dauka eskualde horri buruzko azterlan epidemiologikorik?

4. Halakorik ez badago, egiteko asmorik ba al du Nafarroako Gobernuako Osasun Departamentuak, informazioa edukitzeko eta herritarrak lasaitzeko?

Tuteran, 2007ko urtarrilaren 25ean

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, jakiteko ea legegintzaldi honetan hitzarmen berezirik egin ote den interes orokorreko azpiegiturek kaltetutako udalekin, horiei ordaina emateko.

FORU PARLAMENTARI JOSÉ LUIS IZCO BIARGE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak egindako galdera, jakiteko ea legegintzaldi honetan hitzarmen berezirik egin ote den interes orokorreko azpiegiturek kaltetutako udalekin, horiei ordaina emateko. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José

Luis Izco Biargek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Toki Administrazio kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Legegintzaldi honetan zehar interes orokorreko azpiegiturek kaltetutako udalei ordaina emateko hitzarmen berezirik sinatu al da?

Baiezkoan, honako informazioa eskatzen dut:

Hitzarmen-kopurua, hitzarmenak zer toki entitatearekin sinatu diren eta haietako bakoitzaren kopia.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 22an

Foru parlamentaria: José Luis Izco Biarge

Galdera, jakiteko baremazio berezirik aplikatu ote den 2003, 2004, 2005 eta 2006. urteetan toki entitateen eskualde zerbitzu bateratuak finantzatzerakoan edo haiei diruz laguntzean.

FORU PARLAMENTARI JOSÉ LUIS IZCO BIARGE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak egindako galdera, jakiteko baremazio berezirik aplikatu ote den 2003, 2004, 2005 eta 2006. urteetan toki entitateen eskualde zerbitzu bateratuak finantzatzerakoan edo haiei diruz laguntzean. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José

Luis Izco Biargek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Toki Administrazio kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Baremazio berezirik aplikatu da 2003, 2004, 2005 eta 2006. urteetan toki entitateen eskualde zerbitzu bateratuak finantzatzerakoan edo haiei diruz laguntzean?

Baiezkoan:

Baremazio bereziari buruzko zer araudi aplikatzen da?

Zenbat dirulaguntza eman dira prozedura horri jarraituz?

Zenbatekoa izan da dirulaguntza bakoitza?

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 22an

Foru parlamentaria: José Luis Izco Biarge

Galdera, jakiteko ea 2003, 2004, 2005 eta 2006. urteetan finantza-saneamenduko neurriak aplikatu zaien arazo ekonomiko larriak zituzten toki entitateei.

FORU PARLAMENTARI JOSÉ LUIS IZCO BIARGE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak egindako galdera, jakiteko ea 2003, 2004, 2005 eta 2006. urteetan finantza-saneamenduko neurriak aplikatu zaien arazo ekonomiko larriak zituzten toki entitateei. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Luis Izco Biargek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Toki Administrazio kontseilariak idatziz erantzun dezan:

2003, 2004, 2005 eta 2006an finantza-saneamenduko neurriak aplikatu al zaie arazo ekonomiko larriak zituzten toki entitateei?

Baiezkoan:

Toki entitateekin ezarritako akordio bakoitzaren kopia eskatzen dugu.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 22an

Foru parlamentaria: José Luis Izco Biarge

Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak asmorik ba ote duen neurriren bat hartzeko Toki Administrazioiko Departamentua toki entitateekiko harremanetarako lehiatila bakar bihurtzeko.

FORU PARLAMENTARI JOSÉ LUIS IZCO BIARGE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak egindako galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak asmorik ba ote duen neurriren bat hartzeko Toki Administrazioiko Departamentua toki entitateekiko harremanetarako lehiatila bakar bihurtzeko. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Luis Izco Biargek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Toki Administrazio kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak inolako neurririk hartu du Toki Administrazioiko Departamentua lehiatila bakar bihurtzeko 2.000 biztanletik beherako toki entitateentzat?

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 27an

Foru parlamentaria: José Luis Izco Biarge

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Lehendakariaren, eledunen eta Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko behin-behineko langileen ordainsariak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak lehendakariaren, eledun titular nahiz atxikien eta Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko behin-behineko langileen ordainsariei buruz emandako txostena ikusi ondoren, 2003ko abenduaren 30eko bilkuran Legebiltzarreko Mahaiak onetsiriko irizpideei jarraituz, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 15 eta 37. artikuluetan xedaturikoaren arabera, honako hau ERABAKI DA:

1. Lehendakariaren 2007. urteko ordainsari gordinak 76.347,18 eurokoak izatea.

2. Eledun titular edo atxikien 2007. urteko ordainsari gordinak 50.937,60 eurokoak izatea. Halaber, finkatuko ez den sari bakar bat ordaintzea. Sari hori 2006. urtean A mailaren hasierako soldatari dagozkion oinarritzko ordainsari osoen pareko zenbatekoaren %0,58 izanen da.

3. Lehendakaritzako Kabineteko buruaren 2007. urteko ordainsari gordinak 52.249,96 eurokoak izatea.

4. 2007. urteko ordainsari gordinak ondokoak izanen direla ezartzea, deusetan galarazi gabe indarreko araudiarekin bat legokiekeen antzinate-sun eta graduगतiko ordainsaria.

a) Lehendakaritzako idazkaria: 33.497,80 euro.

b) Mahaiko kideen idazkaria: 26.936,98 euro.

c) Parlamentu-taldearen laguntzaileak 26.936,98 euro.

5. Hitzarmen bereziaren eraginpeko parlamentarien kotizazio-oinarriak errebalarizatzea, Zerbitzu Ekonomikoaren txostenean adierazitako irizpideei jarraituz.

6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Foru parlamentarien eta parlamentu-taldeen ordainsariak 2007ko ekitaldirako.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailatza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak eginiko txostena ikusirik, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 15, 35 eta 37. artikuluetan xedatuari jarraikiz, hauxe ERABAKI DA:

1. Foru parlamentarien eta parlamentu-taldeen ordainsariak onestea, 2007ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez. Haien zenbatekoak hauek dira:

A) Foru parlamentarietako ordainsariak:

– Dietak: 145,00 euro bertaratze bakoitzeko, helbidea Iruñean edo Iruñetik 25 kilometrora bitarteko herrietan daukaten foru parlamentarietatzat.

– Dietak: 171,50 euro bertaratze bakoitzeko, helbidea Iruñetik 25 kilometro baino gehiagora dauden herrietan daukaten foru parlamentarietatzat.

– Kilometro-ordaina: kilometro bakoitzeko 0,30 euro.

B) Parlamentu-taldeentzako ordainsariak:

a) Diru-laguntza finkoa: 7.524,00 euro/hilabete/parlamentu-talde.

b) Diru-laguntza aldakorra: Kontzeptuon araberrako baturaren zenbatekoa:

– Funtzionamendu gastuak: 1.359,00 euro/hilabete/parlamentari.

– Antolaketa gastuak: 1.039,00 euro/hilabete/parlamentari.

– Langile eta jarduera gastuak: 3.880,00 euro/hilabete/parlamentu-taldeko bost parlamentari bakoitzeko edo zatikiko.

2. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legearen 14. artikuluan ezarritakoari begira, gastuetarako ordainsaria dieta bakoitzerako 67 eurokoa izan dadila xedatzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialaren eta Bilkura Egunkariaren tarifak 2007ko ekitaldirako.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialaren eta Bilkura Egunkariaren harpidetzaren eta banakako aleen salmenta prezioak eguneratzeko proposamena ikusita, Legebiltzarreko 37. artikulua xedatutakoarekin bat, ERABAKITZEN DA:

1.- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialaren eta Bilkura Egunkariaren tarifa berriak onestea. Hauek izanen dira 2007ko ekitaldian:

• Urteko harpidetza: 45,15 euro

• Banakako aleak:

– Aldizkari Ofiziala 1,18 euro

– Bilkura Egunkaria 1,34 euro

2.- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen plantilla organikoa, 2007ko urtarrilaren 1ekoa.

Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 14.1 artikulua xedatzen du Legebiltzarraren zerbitzuko langileen plantilla organikoa urtero onetsi behar dela, Langileen Batzordeak txostena egin ondoren.

Hori horrela, hona ERABAKIA:

1. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen plantilla organikoa, 2007ko urtarrilaren 1ekoa, onestea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

a) Funtzionarioak

	Kop.	Maila	Izen. lib.	Esklusi- bitatea	Batera- ezintasuna	Lanpostu osagar.	Mailako osagarria	Osag. berar.	Arrisku berezikoa
IDAZKARITZA NAGUSIA									
Legelari nagusia	1	A	X	55		75		35	
Mahaiko eta Eledunen Batzarreko idazkaritza									
Administrari burua	1	C	X			51,68	12		
Administraria	1	C				41,68	12		
ZERBITZU JURIDIKOAK									
Legelari nagusiaren ondokoa	1	A	X	55		58		15	
Legelariak	3	A		55		58			
ZERBITZU OROKORRAK									
Administrazio teknikari burua	1	B		55		38			
Teknikari diplomatua (**)	1	B		55		13			
Administrazio kudeaketako teknikaria	1	B			35	28			
Informatikako teknikaria	1	A			35	28			
Informatikako teknikaria	2	B			35	28			
Administrariak (*)	5	C				41,68	12		
Ofizial teknikaria (**)	1	C		55		16	12		10
Gelazain nagusia									
Gelazain nagusia	1	D				42	15		
Gelazainak	10	D				32	15		
PRENTSA, ARGITALPEN ETA PROTOKOLO ZERBITZUA									
Prentsako burua	1	A		55		58			
Itzultzaileak	5	A		55		12			
Protokoloko teknikaria	1	B			35	28			
Administraria (*)	1	C				41,68	12		
Transkriptoreak (*)	6	C				41,68	12		
Protokoloko Burutza									
Administrari burua	1	C				51,68	12		
ARTXIBO, LIBURUTEGI ETA DOKUMENTAZIO ZERBITZUA									
Artxibo eta Liburutegiko burua	1	A		55		38			
Liburutegiko laguntzailea	2	B			35	28			
Administraria (*)	2	C				41,68	12		

	Kop.	Maila	Izen. lib.	Esklusi- bitatea	Batera- ezintasuna	Lanpostu osagar.	Mailako osagarria	Osag. berar.	Arrisku berezikoa
KONTU-HARTZAILETZA ETA EKONOMI GAJETAKO ZERBITZUA									
Kontu-hartzailezako burua	1	B		55		38		15	
Administrazio kudeaketako teknikaria	1	B			35	28			
Administrariak	2	C				41,68	12		
NAFARROAKO ARARTEKOAREN BULEGOA									
Goi mailako teknikaria	1	A			35	28			
Administrazio kudeaketako teknikaria (***)	1	B			35	28		10	
Administraria	2	C				41,68	12		
Gelazaina	1	D				32	15		

(*) 1 euskarazko titulua duena

(**) Iraungitzekoa.

(***) Arartekoak berariazko osagarri hau proposatzen du kontu-hartzailezaren eginkizunak burutzeagatik.

b) Behin-behineko langileak

Zenbatekoa	Lanpostua	Izendapen librea
1	Lehendakaritzako kabineteburua	BAI
1	Lehendakaritzako idazkaria	BAI
1	Mahaiko kideen idazkaria	BAI
9	Parlamentu-taldean laguntzaileak	BAI

Arartekoaren behin-behineko langileak:

Zenbatekoa	Lanpostua	Izendapen librea
2	Arloko aholkulari arduraduna	C
2	Aholkulari teknikoa	C
1	Arartekoaren idazkaria	G

C = Nafarroako arartekoaren bulegoko behin-behineko kargua

G = Kabineteko behin-behinekoa

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko funtzionarioen zerrenda, 2006ko abenduaren 31koa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroako Parlamentuan 2006ko abenduaren 31n lanean ari ziren funtzionarioen ondoko zerrenda onestea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Izen-abizenak	Maila	Gradua	Lanpostuak	Administrazio egoera
IDAZKARITZA NAGUSIA				
DÍEZ LAGO, P.	A	6	Legelari nagusia	Aktiboa
Mahaiko eta Eledunen Batzarreko idazkaritza				
ALFARO ERVITI, C.	C	7	Administrari burua	Aktiboa
LASECA ESCUER, J.R.	C	5	Administraria	Aktiboa
ZERBITZU JURIDIKOAK				
ESPARZA OROZ, M.	A	6	Legelari nagusiaren ondokoa	Aktiboa
BERMEJO GARDE, M.	A	6	Legelaria	Zerb. Bereziak
PULIDO QUECEDO, M.F.	A	5	Legelaria	Zerb. Bereziak
LANPOSTU HUTSA	A		Legelaria	
ZERBITZU OROKORRAK				
CERRO PAÚL, F. J. DEL	B	7	Zerb. Orokorretako burua	Aktiboa
LARRAÑETA LIZARRONDO, M. V.	B	7	Teknikari diplomatua	Aktiboa
LANPOSTU HUTSA	B		Administrazio kudeaketako teknikaria	
LOYOLA ERASO, P.	A	4	Informatikako teknikaria	Aktiboa
ARANAZ JIMÉNEZ, E.	B	2	Informatikako teknikaria	Aktiboa
MARZAL PARRA, M ^a A.	B	4	Informatikako teknikaria	Aktiboa
ARDAIZ EGÜÉS, A.	C	5	Administraria	Zerb. Bereziak
BEAR SANZ, C.	C	5	Administraria	Aktiboa
DÍAZ DE RADA TURUMBAY, J.C.	C	7	Administraria	Aktiboa
MIGUÉLIZ GARCÉS, I.	C	4	Administraria *	Aktiboa
LEZÁUN JUÁNIZ, M.	C	5	Administraria	Zerb. Bereziak
EQUIZA MAQUIRRIÁIN, J. M.	C	5	Ofizial teknikaria	Aktiboa
Gelazain nagusia				
ANSORENA URRIZA, A.	D	5	Gelazain nagusia	Aktiboa
ADOT LOPERENA, M.A.	D	5	Gelazaina	Aktiboa
ARIZCUREN REY, M. Á.	D	5	Gelazaina	Aktiboa
FADRIQUE GARDE, I.	D	6	Gelazaina	Zerb. Bereziak
ENECOIZ SEGURA, F.	D	3	Gelazaina	Aktiboa
MARTÍNEZ ORDUÑA, M. J.	D	4	Gelazaina	Zerb. Bereziak
MONEO MARTÍNEZ, M.I.	D	4	Gelazaina	Aktiboa
TORRES IBARROLA, J. M.	D	5	Gelazaina	Aktiboa
URMENETA MARÍN, O.	D	4	Gelazaina	Aktiboa
VENTURA ARBILLA, A.I.	D	5	Gelazaina	Zerb. Bereziak
LANPOSTU HUTSA	D		Gelazaina	

Izen-abizenak	Maila	Gradua	Lanpostuak	Administrazio egoera
PRENTSA, ARGITALPEN				
ETA PROTOKOLO ZERBITZUA				
GIL MARTÍNEZ, C. J.	A	5	Prentsako burua	Aktiboa
ARANA BAREÑO, A.	A	2	Itzultzailea	Aktiboa
ARISTEGUIETA OQUIÑENA, X.	A	2	Itzultzailea	Aktiboa
ETXEBARRIA ARIZNABARRETA, M.	A	3	Itzultzailea	Eszedentzia
IRIARTE CILVETI, M.	A	3	Itzultzailea	Aktiboa
IRIZAR APAOLAZA, A.	A	2	Itzultzailea	Aktiboa
MENA GARCÍA, T.	B	3	Protokoloko teknikaria **	Aktiboa
ARMENDÁRIZ SENBEROIZ, B.	C	5	Administraria *	Aktiboa
ARANAZ MARTÍ, C.	C	4	Transkriptorea	Aktiboa
HUARTE CAMPIÓN, A. I.	C	6	Transkriptorea	Aktiboa
PALMA ROMERO, F.	C	5	Transkriptorea	Aktiboa
SÁENZ GARCÍA, M. C.	C	5	Transkriptorea	Zerb. Bereziak
SANTIAGO SEGOVIA, I. DE	C	4	Transkriptorea *	Aktiboa
SEVINÉ RUIZ, M.	C	2	Transkriptorea	Aktiboa
Protokoloko Burutza				
LANPOSTU HUTSA	C		Administrari burua	
ARTXIBO, LIBURUTEGI ETA				
DOKUMENTAZIO ZERBITZUA				
FORTÚN PÉREZ DE CIRIZA, L. J.	A	6	Artxibo eta Liburutegiko burua	Aktiboa
ITURRI VILLANUEVA, A	B	3	Liburutegiko laguntzailea eta dokumentalista	Aktiboa
ALEGRÍA GOÑI, M.C.	B	2	Liburutegiko laguntzailea eta dokumentalista	Aktiboa
MITXELENA ENBIL, I. A.	C	4	Administraria *	Aktiboa
LANPOSTU HUTSA	C		Administraria	
KONTU-HARTZAILTZA ETA				
EKONOMI GAIETARAKO ZERBITZUA				
ZULET RECALDE, F.	B	5	Kontu-hartzailtzako burua	Aktiboa
VIDÁN ASTIZ, L.	B	2	Administrazio kudeaketako teknikaria	Aktiboa
FERNÁNDEZ GELOS, M ^a V.	C	6	Administraria	Aktiboa
PÉREZ DE RADA ARÍSTEGUI, M. E	C	7	Administraria	Aktiboa
NAFARROAKO ARARTEKOAREN BULEGOA				
LANPOSTU HUTSA	A		Goi mailako teknikaria	
BALDUZ GIL, JORGE	B	1	Administrazio kudeaketako teknikaria	Aktiboa
ECHEVERRIA UHALTE, CELINA	C	6	teknikaria	Aktiboa
LAINÉZ GIL, MAR	C	5	Administraria	Aktiboa
LANPOSTU HUTSA	D		Gelazaina	

(*) Euskarazko titulua nahitaezkoa duen lanpostua

(**) Ingelesezko titulua nahitaezkoa duen lanpostua

Nafarroako Comptos Ganberako 2007. urterako plantilla organikoa eta erakunde horren funtzionarioen zerrenda 2006ko abenduaren 31koa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Comptos Ganberako lehendakariak, 2007ko urtarrilaren 22an hartutako erabaki baten bitartez, 2007rako plantilla organikoa eta 2006ko abenduaren 31n erakundearen zerbitzuan

zeuden funtzionarioen zerrenda onetsi zuen. Erabaki hori ikusita, hona ERABAKIA:

1. Erabaki horren jakitun dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Comptos Ganberako plantilla organikoa 2007. urterako

Lanpostua	Zenbatekoa	Maila	Araubide juridikoa	Euskararen titulazioa	Izendapen librea	Esklusi-bitatea	Lan-postua	Mailako osagarria	Berriazko osagarria
Lehendakaritzako aholkularia	1		G		X				
Lehendakaritzako idazkaria	1		G		X				
Idazkari nagusia	1	A	F		X	55	75		30
Auditorea	5	A	F			55	75		10
Legelaria	2	A	F			55	58		
Kazetari-itzultzailea	1	A	F	X		55	44		
Informatikako goi mailako teknikaria	1	A	F			55	35		
Auditoretzako teknikari-kontu-hartzailea	1	B	F			55	45		20
Auditoretzako teknikaria	15	B	F			55	45		
Auditoretzako teknikaria	2	B	F	X		55	45		
Administratzailea	1	C	F		X	55	53,50	12	
Administraria	5	C	F				41,68	12	
Administraria	1	C	F	X			41,68	12	
Mandataria	2	D	F				32	15	
GUZTIRA	39								

F: funtzionarioa

G: Kabineteko behin-behineko langilea – izendapen libreakoa

**2006ko abenduaren 31n Nafarroako Comptos Ganberaren
zerbitzuan zeuden funtzionarioen zerrenda**

Deiturak eta izena	Maila	Gradua	Lanpostua	Administrazio egoera
Ordoki Urdazi, Luis M ^a	A	5	Idazkari nagusia	Aktiboa
Cabeza del Salvador, José Ignacio	A	5	Auditorea	Aktiboa
Fuertes Pérez, José	A	7	Auditorea	Aktiboa
Muruzábal Lerga, Jesús Salvador	A	5	Auditorea	Aktiboa
Olaechea Estanga, M ^a Asunción	A	4	Auditorea	Aktiboa
Sesma Masa, Francisco Javier	A	6	Auditorea	Aktiboa
Ezquerro Royo, José Luis	A	5	Legelaria	Aktiboa
Sánchez Lerma, Gemma Angélica	A	2	Legelaria	Aktiboa
Arrieta Gutiérrez, Francisco Javier	A	6	Informatikako sistemen goi mailako teknikaria	Aktiboa
Erbiti Zabalza, Fermín	A	3	Kazetari-itzultzailea	Aktiboa
Azcona Díez de Ulzurrun, M ^a Carmen	B	5	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Balduz Gil, Elvira	B	4	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Biurrun Martiarena, José Miguel	B	5	Auditoretzako teknikari- kontu-hartzailea	Aktiboa
Bobadilla Bacaicoa, M ^a Pilar	B	5	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Equiza Maquirriain, M ^a José	B	6	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Etayo Salazar, Francisco José	B	5	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Fernández Renedo, Blanca Esther	B	5	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Gil Ochoa, M ^a Antonia	B	5	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Herrera Isasi, M ^a Begoña	B	1	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Irigoyen Olaiz, M ^a Lourdes	B	6	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Martcorena Chapa, Xavier Iñigo	B	3	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Martinikorena Matxain, Miren Edurne	B	1	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Sola Mateos, M ^a Pilar	B	6	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Zudaire Echávarri, Antonia Aurora	B	5	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Zudaire Echávarri, Rosa Isabel	B	5	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Lanpostu hutsa	B		Auditoretzako teknikaria	
Lanpostu hutsa	B		Auditoretzako teknikaria	
Lanpostu hutsa	B		Auditoretzako teknikaria	
Martínez Cía, M ^a Isabel	C	7	Administratzailea	Aktiboa
Casado Redin, Cristina	C	4	Administraria	Aktiboa
Elizalde Del Rincón, Teresa	C	4	Administraria	Aktiboa
Elizalde Elizalde, M ^a Julia	C	5	Administraria	Aktiboa
Fernández Goñi, Joxe Julen	C	5	Administraria	Aktiboa
Lander Laurenz, M ^a Isabel	C	4	Administraria	Aktiboa
Pérez de Albéniz Andueza, Francisca	C	4	Administraria	Aktiboa
Almingol Muñoz, Jesús Emilio	D	5	Mandataria	Aktiboa
Zudaire Echávarri, M ^a Trinidad	D	4	Mandataria	Aktiboa

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

1/2007 Legegintzako Foru Dekretua, urtarrilaren 22koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

Ikusita 1/2007 Legegintzako Foru Dekretua, urtarrilaren 22koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena, eta kontuan harturik Nafarroako Gobernuari eta lehendakariari buruzko 14/2004 Foru Legearen 54. artikulua eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 158. artikulua, hona erabakia:

1. 1/2007 Legegintzako Foru Dekretua, urtarrilaren 22koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena, ezagutzen duela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

1/2007 Legegintzako Foru Dekretua, urtarrilaren 22koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoko 32. artikuluan xedaturikoarekin bat, Balio Erantsiaren gaineko Zerga ordainarazteko, unean-unean Estatuko lurraldean indarra duten oinarriko printzipio, funtsezko arau eta arau formal berak erabiliko ditu Nafarroak. Hala ere, Nafarroako Foru Komunitate-

ko Administrazioak aitorpena egin eta dirua pagatzeko ereduak onesten ahalko ditu, gutxienez ere araubide erkideko lurraldeko datu berak edukiko dituztenak, eta likidazioaldi bakoitzerako pagatzeko epeak adierazten ahalko ditu, Estatuko Administrazioak ezartzen dituenetik sobera bereiziko ez direnak.

Nafarroako Gobernuari eta lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legeak 54. artikuluko 1. idatz-zatian xedatzen du, Hitzarmen Ekonomikoarekin bat, tributu araubide erkidearen aldaketa batek behartzen badu Foru Komunitatean Estatuan unean-unean indarra duten arau berdinen berdintasun, hots, funtsaz eta formaz berdintasun, aplikatzera, Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Parlamentuak haren esku utzirik, tributu arloko foru legeak aldatzeko behar diren foru legeen mailako arauak ematen ahalko dituela.

Iruzur Fiskalari Aurre egiteko azaroaren 29ko 36/2006 Legeak Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legea aldatu du, besteak beste. Lehenbizi, zerbitzu-ematearen baliokidetzat jotzen diren eragiketen definizioa aldatu da eta, horrenbestez, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen 12. artikuluko 3. zenbakia aldatu behar da. Gainera, alderdien artean loturirik dagoenean, zerga-oinarriaren kalkuluan eragina izanen du, Europar Batasunaren zuzenbideari hobe egokitzeko. Bi alderdiek adostutako kontraprestazioa noiz alda daitekeen argitzen da, hots, tributuaren azkeneko bilketan benetako eragina dagoenean, baita horrelako kasuetan egin beharreko eragiketen balorazioa ere (merkatuko balioa bezalakoa izanen da). Hortaz, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko 19/1992 Foru Legearen 27.5 artikulua aldatu beharra dago. Bestalde, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren arloan iruzurra egiteko sare antolatutak desegin nahian, sare horretatik datozen gaiak erosten dituztenen erantzukizun subsidiarioa ezarri da, baldin eta aurreko fase

batean erosgaiari dagokion zerga ordaindu ez bada. Horrenbestez, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen 33. artikulua aldatu beharra dago.

Hori guztia dela-eta, lehen aipatutako legegintzarako eskuordetza erabiliz, beharrezkoa da tributu harmonizazioari buruzko legegintzako foru dekretu baten bidez Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzeko behar diren arauak ematea, abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legeko 54. artikuluko 1. idatziarekin bat.

Tributu harmonizazioari buruzko legegintzako foru dekretu honek atzerako eragina izanen du, haren ondorioak harmonizatu beharreko araubide erkideko arauen ondorioekin bat etor daitezten.

Horiek horrela, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak proposaturik, eta Nafarroako Gobernuak 2007ko urtarrilaren 22ko bilkuran hartutako erabakiari jarraikiz,

DEKRETATU DU:

1. artikulua. Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzea.

Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen artikulua hauek aldatu dira eta ondoren azaldu bezala gelditu dira:

Bat. 12. artikuluko 3. zenbakia:

“3. Subjektu pasiboak kobratu gabe egiten dituen gainerako zerbitzu-emateak, artikulua honetako aurreko zenbakietan aipatu ez direnak, betiere enpresa edo lanbide jardueraz kanpoko helburuetarako egiten badira.”

Bi. 27. artikuluko 5. zenbakia:

“5. Eragiketean parte hartzen duten alderdien artean lotura dagoenean, zerga-oinarria merkatuko ohiko balioa izanen da.

Lotura zuzenbidean onartuta dagoen edozein baliabideren bidez frogatzen ahalko da. Honelako kasuetan, lotura dagoela ondorioztatuko da:

a) Parte hartzen duen alderdien bat Sozietateen gaineko Zergaren edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren subjektu pasiboa bada edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren pekoa, zerga horietako arauak aplikatzen hala ondorioztatzen denean.

b) Subjektu pasiboek lan edo administrazio izarako harremanen bidez beraiei loturik dauden pertsonekin egiten dituzten eragiketetan.

c) Subjektu pasiboak bere ezkontidearekin edo hirugarren maila bitarteko odol-ahaideekin egiten dituen eragiketetan.

d) Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea arautzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legean ezarritako tributu araubidearen pean dagoen irabazi asmorik gabeko entitate batek edo, bestela, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga araubideari eta mezenasgoarendako zerga pizgarrii buruzko abenduaren 23ko 49/2002 Legearen 2. artikuluan aipatzen diren irabazi asmorik gabeko entitate batek bere fundatzaileekin, bazkideekin, patroiekin, estatutuen araberrako ordezkariekin, gobernu organoetako kideekin edo horrelakoen ezkontide edo hirugarren maila bitarteko ahaideekin egiten dituen eragiketetan.

e) Enpresaburu edo profesionala den entitate batek bere bazkideekin, elkartuekin, kideekin edo partaideekin egiten dituen eragiketetan.

Balorazio arau hau aplikatzeko, ondoko baldintzak bete behar dira nahitaez:

a) Eragiketaren hartzaileak dagokion zerga oso-osorik kentzeko eskubiderik ez izatea eta itundutako kontraprestazioa lehia garbiko egoera batean legokiokeena baino merkeagoa izatea.

b) Ondasuna edo zerbitzua ematen duen enpresaburuak edo profesionalak hainbanaketaren arauari jarraikiz kalkulatzeko baditu kenkariak eta, kenkaria egiteko eskubiderik ez duten eragiketen kasuan, itundutako kontraprestazioa merkatuko ohiko balioa baino merkeagoa izatea.

c) Ondasuna edo zerbitzua ematen duen enpresaburuak edo profesionalak hainbanaketaren arauari jarraikiz kalkulatzeko baditu kenkariak eta, kenkaria egiteko eskubidea duten eragiketen kasuan, itundutako kontraprestazioa merkatuko ohiko balioa baino garestiagoa izatea.

Foru lege honen ondorioetarako, merkatuko ohiko balioa haxe hartuko da: ondasun edo zerbitzu horiek une horretan berean erosteko, ondasunak edo zerbitzuak ematen diren merkatu-ratze fase berean, zergaren aplikazio esparruan lehia garbiko egoera batean hartzaile batek hornitzaile independente bati ordaindu behar den liokeen prezioa.

Konparatzeko moduko ondasun- edo zerbitzu-ematerik ez badago, merkatuko balioa honela kalkulatu da:

a) Ondasun-emateetan, ondasuna ematen duen unean ondasun horiek edo antzekoek duten erosprezioa bezalakoa edo hortik gorakoa izanen

da, eta erosteko preziorik ezean, haren kostaprezioa bezalakoa edo hortik gorakoa.

b) Zerbitzu-emateetan, zerbitzu hori emateak enpresaburuari edo profesionalari eragiten dizkion kostu guztiak.

Aurreko bi lerroalde horien ondorioetarako, bidezkoa denean, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 28. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.”

Hiru. 33. artikulua. Zergaren erantzuleak.

“Bat. Subjektu pasiboak ordaindu beharreko tributu zorraren erantzule solidario izanen dira eragiketen hartzaile direnak, egite edo ez-egite erruzkoaren edo dolozkoaren ondorioz zerga behar bezala jasanaraztea saihesten badute.

Ondorio horretarako, erantzukizuna bidezko litekeen zehapenera ere hedatuko da.

Bi. 1. Subjektu pasiboek ordaindu beharreko kargapeko eragiketei dagozkien tributu kuoten erantzule subsidiario izanen dira haien hartzaile diren enpresaburu edo profesionalak, baldin eta ondorioztatzen bada arrazoibidez susmatu behar luketela ez dela aitortu eta ordaindu, ez jasana-razitako zerga, ez eta eragiketa egiten duen enpresaburu edo profesionalak edo xedeko ondasunen erosketa eta ematea egin zuen beste edonork jasanarazi beharko lukeen zerga ere, eta ez dagoela horrelakorik egiteko asmorik.

2. Horren ondorioetarako, ondorioztatuko da aurreko zenbakian aipatutako eragiketen hartzaileek arrazoibidez susmatu beharko luketela jasana-razitako edo jasanarazi beharreko zerga ez dela aitortu eta ordaindu eta ez dagoela horrelakorik egiteko asmorik, baldin eta ondasunen truke oso ohiz kanpoko prezioa ordaindu badute.

Oso ohiz kanpoko prezioztat hartuko da:

a) Eragiketaren baldintza berberetan ondasun horiek duten prezioarekin alderatuta edo ondasun berdinen aurreko erosketetan ordaindutakoarekin alderatuta, prezioa nabarmen txikiagoa bada.

b) Ondasun horien ematea egin duenak ordaindu zuen prezioarekin alderatuta, nabarmen txikiagoa baldin bada.

Eragiketaren prezioa oso ohiz kanpokoztat jotzeko, Zerga Administrazioak eskura duen dokumentazioa eta erabiltzaileek ekartzen dutena aztertuko du eta, ahal denean, sektore ekonomiko berean egindako beste eragiketa oso antzeko batzuk baloratuko ditu, eragiketa egin zen unean ondasun horien merkatuko ohiko balioa kuantifikatzeko asmoz.

Zergaren aplikazioaz kanpoko faktore ekonomikoak direla-kausa justifikatzen diren prezioak ez dira oso ohiz kanpoko prezioztat hartuko.

3. Erantzukizun hau eskatzeko, Zerga Administrazioak egiaztatu beharko du, jasanarazi beharreko zerga bat egonda ere, ez dela aitortu eta ordaindu.

4. Zerga Administrazioak aurreko idatz-zatietan ezarritako baldintzak gertatzen direla egiaztatu ondoren, erantzukizuna deklaratu du, Tributu buruzko 13/2000 Foru Lege Orokorraren 29. artikuluko 4. eta 5. idatz-zatietan xedatutakoari jarraituz.”

2. artikulua. Nafarroako Parlamentuari igortzea.

Tributu Harmonizazioari buruzko Legegintzako Foru Dekretu hau Nafarroako Parlamentura igorriko da, Nafarroako Gobernuari eta lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 54.5 artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Azken xedapena. Indarra hartzea.

Tributu harmonizazioari buruzko Legegintzako Foru Dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra eta 2006ko abenduaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

Bi eta hiru idatz-zatietan xedatutakoa Balio Erantsiaren gaineko Zerga 2006ko abenduaren 1etik aurrera sortzen duten eragiketei aplikatuko zaie.

2/2007 Legegintzako Foru Dekretua, urtarrilaren 22koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

Ikusita 2/2007 Legegintzako Foru Dekretua, urtarrilaren 22koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duena, eta kontuan harturik Nafarroako Gobernuari eta lehendakariari buruzko 14/2004 Foru Legearen 54. artikulua eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 158. artikulua, hona erabakia:

1. 2/2007 Legegintzako Foru Dekretua, urtarrilaren 22koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duena, ezagutzen duela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

2/2007 Legegintzako Foru Dekretua, urtarrilaren 22koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoko 35. artikuluan xedaturikoarekin bat, Foru Komunitateari dagozkion zerga bereziak ordainarazteko, unean-unean Estatuko lurraldean indarra duten oinarrizko printzipio, funtsezko arau eta arau formal berak ibiliko ditu hark. Hala ere, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak aitorpena egin eta dirua pagatzeko ereduak onesten ahalko ditu, gutxienez ere araubide erkideko lurraldeko datu berak edukiko dituztenak, eta likidazioaldi bakoitzerako pagatzeko epeak adierazten ahalko ditu, Estatuko Administrazioak ezartzen dituenetik sobera bereziko ez direnak.

Nafarroako Gobernuari eta lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legeak 54. artikuluko 1. idatz-zatian xedatzen du, Hitzar-

men Ekonomikoarekin bat, tributu araubide erkidearen aldaketa batek behartzen badu Foru Komunitatean Estatuan unean-unean indarra duten arau berdin-berdinak, hots, funtsaz eta formaz berdinak, aplikatzera, Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Parlamentuak haren esku utzirik, tributu arloko foru legeak aldatzeko behar diren foru legeen mailako arauak ematen ahalko dituela.

Iruzur Fiskalari aurre egiteko azaroaren 29ko 36/2006 Legearen 4. artikulua bidez Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legea aldatu da, jostetako ontziak zenbait garraibideren gaineko Zerga Bereziatik salbuesteari dagokionez, bai eta aire-nabigazioko enpresen izenean matrikulatutako aireontzien edo aire-nabigazioko enpresei eta ez beste inori errentan emateko matrikulatutako aireontzien salbuespenari dagokionez ere. Horrez gainera, aipatutako legearen bidez zenbait garraibideren gaineko Zerga Bereziaren likidazioaren eta ordainketaren beste zenbait alderdi aldatu dira, ibilgailu erabiliei buruzkoak, izan ere, orain behin betikoz matrikulatu aurretik autolikidazioa Tributu Administrazioak ikus-onestea eskatzen da.

Ibilgailuen parkea modernizatzeko, bide-segurtasuna hobetzeko eta ingurumena defendatu eta babesteko Prever programari buruzko presako zenbait neurri ezarri zituen abenduaren 29ko 13/2006 Errege Lege-Dekretuak Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legea aldatu du, zenbait garraibideren gaineko Zerga Bereziaren kuotaren kenkariei dagokionez, izan ere, 2008ko urtarrilaren 1ean Prever Programa behin betikoz kenduko dela finkatzen du eta, 2007. urteari dagokionez, 2.500 zentimetro kubikotik beherako zilindroiak duten autoetara murrizten du.

Horregatik guztiagatik, beharrezkoa da, lehen aipatutako legegintzarako eskuordetza erabiliz, tributu harmonizaziorako legegintzako foru dekretu baten bidez Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzeko behar diren arauak ematea, abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 54.1 artikuluaarekin bat, Estatuarekin sinatutako Hitzarmen Ekonomikoaren 35. artikulua araberako Nafarroako Foru Komunitateak Estatu lurraldean indarra duten arau berdin-berdinak –bai funtsari bai formari dagokionez– aplikatu behar dituen kasuak egokitzeko.

Tributu harmonizazioari buruzko legegintzako foru dekretu honek atzerako eragina izanen du,

haren ondorioak harmonizatu beharreko araubide erkideko arauen ondorioekin bat etor daitezten.

Horiek horrela, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak proposaturik, eta Nafarroako Gobernuak 2007ko urtarrilaren 22ko bilkuran hartutako erabakiari jarraikiz,

DEKRETATU DUT:

1. artikulua. Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzea.

Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legearen artikulua hauek aldatu dira: Ondoren azaldu bezala geldituko dira:

Bat. 43. artikuluko 1. zenbakiko f) letra:

“f) Jostetako eta ur kiroletako ontziak, hama-bost metrotik beherako luzera badute eta bakar-bakarrik alokatzeko asmoz matrikulatzen badira.

Salbuespen hau ibilgailuak alokatzeko ezarrita dauden baldintzak eta mugapenak betetzearen baldintzapean egonen da.

Nolanahi ere, ez da alokatzeko jardueratzat hartuko titularrak ontzia errentan emateko lagatzen duenean, betiere titularrak edo hari lotutako pertsona batek ontzi hori edo lagapen hartzaileak edo hari lotutako beste pertsona batek duen beste ontzi bat erabiltzeko eskubide osoa edo partziala jasotzen badu titulu baten bidez.

Letra hau aplikatzeari begira, titularrari lotutako pertsonak izanen dira Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen 27. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituztenak.”

Bi. 43. artikuluko 1. zenbakiko j) letra:

“j) Aire-nabigazioko enpresen izenean matrikulatutako aireontziak.

Aire-nabigazioko enpresei alokatutako eta haren izenean matrikulatutako aireontzien kasuan, salbuespena ez da aplikatuko errentatzaileak edo hari lotutako pertsonak aireontziaren azkeneko erabiltzaileak badira aireontziak hamabi hilabete jarraian egiten dituen hegal-orduen %5ean baino gehiago.

Letra hau aplikatzeari begira, titularrari lotutako pertsonak izanen dira Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen 27. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituztenak.”

Hiru. 43. artikuluko 1. zenbakiko k) letra:

k) Aire-nabigazioko enpresei eta ez beste inori errentan emanak izateko matrikulatzen diren aire-ontziak.

Salbuespena ez da aplikatuko baldin eta matrikulazio datuetan agertzen den pertsona edo hari lotutako pertsonak aireontziaren azkeneko erabiltzaileak badira aireontziak hamabi hilabete jarraian egiten dituen hegal-orduen %5ean baino gehiago.

Letra hau aplikatzeari begira, titularrari lotutako pertsonak izanen dira Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen 27. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituztenak.”

Lau. 47. bis artikulua.

“47. bis artikulua. Kuotaren kenkaria.

1. Ondoko 2. zenbakian ezarritako baldintzak betetzen dituen auto erabili baten titularrak den subjektu pasiboak eskubidea edukiko du bere ize-nean dagoen eta 3. zenbakian agertzen diren baldintzak betetzen dituen auto berri baten behin betiko lehen matrikulazioa dela-eta eskatzen ahal den zergaren kuotan kenkari bat egiteko. Kenkaria 480,81 eurokoa izanen da, baina inolaz ere ez kuota baino handiagoa.

2. Aurreko zenbakian aipatutako auto erabiliak baldintza hauek bete beharko ditu:

a) Artikulu honetan aipatzen den kenkaria aplikagarri den unean hamar urte edo gehiago izatea, lehenengo behin betiko matrikulazioa egin zaion egunetik hasita.

Behin betiko lehenengo matrikulazioa Espainian egin ez bada, nahitaezkoa da, aurreko lehenengo aipatzen den antzinatasunaz gain, auto erabilia Espainian behin betikoz matrikulatua izatea, zatikatzeko behin betiko baja –hurrengo b) letran azaltzen dena– baino sei hilabete lehenago gutxienez.

b) Zatikatzeko behin betiko baja izatea eta baja eman zaion egunetik auto berria matrikulatu bitarte sei hilabete baino gehiago ez igarotzea.

3. Artikulu honetako 1. zenbakian aipatzen den auto berriak 2.500 zentimetro kubikotik beherako zilindria izan beharko du.

4. Aurreko betekizunak ibilgailu berriaren behin betiko matrikulazioa lehenengo aldiz egiten den unean frogatu beharko dira, eta horretarako, zerga ordaindu izanaren agiriarekin batera, auto erabiliarren behin betiko bajaren egiaztagiria aurkeztu beharko da, Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak edo horren menpeko organo batek emana.”

Bost. 48. artikulua.

“48. artikulua. Likidazioa eta zergaren ordainketa.

1. Zergaren autolikidazioa egin beharko da eta, ordainketa egiteko, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak tokiari, moduari, epeei eta inprimakiei buruz finkatzen dituen arauak bete beharko ditu subjektu pasiboak.

2. Auto erabiliaren kasuan, organo eskudunaren aurrean behin betikoz matrikulatu aurretik, zerga administrazioak autolikidazioa ikus-onetsi beharko du, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak finkatzen duen moduan.

Autolikidazioaren ondoriozko kuota Ekonomia eta Ogasun Departamentuak onetsi dituen salmentarako batez besteko prezioak aplikatuz gero aterako litzatekeena baino txikiagoa bada, lerroalde honetan aipatutako ikus-onespena zerga-oinarrian agertzen den balioa egiaztatu ondoren emanen da. Egiaztapena Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorren 44. artikuluan ezarritakoari jarraikiz egingen da.

Aintzat hartuko diren batez besteko prezioak interesatuak zerga administrazioan ikus-onespena eskatzen duenean indarra dutenak izanen dira. Aitortutako balioa egiaztatuko da, orobat, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak onesten dituen tauletan, aurkeztutako autolikidazioaren xede den autorako batez besteko salmenta preziorik ez badago.

Egiaztapena egiteko gehieneko epea hogeita hamar egunekoa izanen da, ibilgailua Zerga Administrazioaren eskura jartzen den egunetik hasita. Epe horretan egiaztapena egiten ez bada, zergadunak aitortutako balioa onartuko da. 30 eguneko epe hori kontatzeari begira, arau hauek aplikatuko dira:

a) Prozeduren gehieneko epearen barrenean jakinarazi beharra bete dela ulertzeko, aski izanen da egiaztatzea ebazpenaren testu bakarria biltzen duen jakinarazpena egiten saiatu direla, behin bederen.

b) Ebazpena emateko epearen barrenean ez dira kontatuko ez erregelamenduz ezartzen diren

arrazoirik gabeko etenaldiak, ez eta Zerga Administrazioari egozteko modukoak ez diren arrazoi-engatik prozeduran gertatzen diren atzerapenak ere.

3. Garraiobidearen behin betiko matrikulazioa egiteko, zerga ordaindu dela frogatu beharko da edo, hala badagokio, ordaindu beharrik ez duela edo salbuetsita dagoela.

Ibilgailu erabiliak badira, zerga ordaindu dela egiaztatzeke Zerga Administrazioak ikus-onetsitako autolikidazioa aurkeztu beharko da, dagokion kuota sartu dela adierazten duena.”

2. artikulua. Nafarroako Parlamentuari igortzea.

Tributu Harmonizazioari buruzko Legegintzako Foru Dekretu hau Nafarroako Parlamentura igorriko da, Nafarroako Gobernuari eta lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 54.5 artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Xedapen indargabetzailea. Ibilgailuen parkea modernizatzeko, bide-segurtasuna hobetzeko eta ingurumena defendatu eta babesteko Prever programaren bukaera.

2008ko urtarrilaren lehenaz geroztik ez du indarririk izanen Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legearen 47. bis artikulua.

Azken xedapena. Indarra hartzea.

Tributu harmonizazioari buruzko Legegintzako foru dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Legegintzako foru dekretu honen Bat, Bi, Hiru eta Bost idatz-zatiek 2006ko abenduaren 1etik aurrera izanen dituzte ondorioak.

Legegintzako foru dekretu honen Lau idatz-zatiak 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 45,15 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,18 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,34 »	